




ttipi-ttapa

ARESO | 2015/06/06



Haur, guraso eta → 25
eskolen XVI. Topaketak

2015eko maiatzaren 28a | XXXV. urtea | 639. zenbakia

erran.eus

Herriko bestak

Almandoz → 27

ETXALAR → 13

Gasna FERIA Eguna
ekainaren 7an

DONEZTEBE → 18

Futbol Taldearen eta
Errekaren Eguna

BAZTAN → 26

Aroztegia Jauregiko UGPS
onartu du Gobernuak

SARA → 32

Errugbi Taldearen
XX. urteurrenko besta



Igantzin sei hilabete barru izanen dute udal hauteskundeak berriz egiteko deialdia, aldi honetan ez delako zerrendarik aurkeztu.

Legasa, Narbarte eta Oiategiko kontzejuetan ere ez denez hautagairik aurkeztu, bigarren deialdia izanen dute.

Hauteskundeak 2015/05/24

Ekainaren 13an hartuko dute kargua alkate eta zinegotziek

ERREPORTAJEA → 3-5



LEITZA → 26

65 kilometroko luzera eta 7.000 metroko gainbehera duen Euskal Herria Mendi Erronka maiatzaren 30ean Leitzan hirugarren aldiz.

ELGORRIAGA → 19

Malerreka Egunaren laugarren edizioa Elgorriagan egingen da maiatzaren 30ean. Egun osorako ekitaldi ugari prestatu dituzte.

BERA → 11

Euskal Herriko solaslagunak bilduko dituen Mintza Eguna maiatzaren 30ean egingen dute Beran.

ZOKKETAK → 44



Adi! ttipi txartel berria egunotan hartuko duzu!



Ekitaldien gaineko informazioa
012 telefonon eta www.berakoagenda.eus



berako agenda

6 larunbata

BERTSO JAIALDIA:
Sustrai Colina,
Maialen Lujanbio,
Miren Amuriza eta
Xabier Terreros
20:00 • Kultur Etxean
Sarrera: 3€
Antolatzaileak: Berako
Kultur Batzordea eta
Berako Udala
Laguntzailea: Nafarroako
Antzoki Sarea



9 asteartea

ekaina

IGERILEKUEN IREKIERA
Abonamenduak:
ekainaren 1etik 8ra: kiroldegian
ekainaren 9tik aitzinera igerilekuan bertan
Ikastaroetako izen-ematea:
ekainaren 8tik 19ra
• Igerilekuan: igeriketa, aquaerobika
• Kiroldegian: step-aerobika, pilates, ciclo indoor,
entrenamendua suspentsioan (trx), ciclo gaztea
Beti bezala, kiroldegiko muskulazio gelara abonatzeko
ahal zara. Eskatu zure entrenamendua!

9 asteartea

UDAKO KONTZERTUA 🎵
18:30 • Kultur Etxean
Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola

13 larunbata

KONTZERTUA: 🎵
Berako Abesbatza
20:00 • Kultur Etxean

12, 13 eta 14

ortziralea larunbata igandea

ALTZATEKO BESTAK

17 asteazkena

HELDUEN ENTZUNALDIA 🎵
19:00 • Musika Eskolan

27 larunbata


BERA KANTARI
19:00 • Illeketako zubian



DONEZTEBE

LAISTER ERAIKITZEKO

ELIZAGIBELA KALEAN



PISUAK
TRASTELEKUAREKIN
SALGAI

106.000€tik
hasita

GARAJEAK

LOKAL KOMERTZIALAK

948 450 133

www.pisossantesteban.com

UDAL HAUTESKUNDEAK 2015 → EMAITZAK HERRIZ-HERRI

Herriz-herriko emaitzak eta boto gehien bildu dituzten alkategaien argazkiak

• Baztanen izan ezik, gainerako udalerri guztietan erabakia gelditu da nola osatuko duten ondoko lau urteetan Udala.

• Ekainaren 13an osatuko dituzte udal berriak, orduan hartuko baitute kargua alkate eta zinegotziek.

• Igantzin sei hilabete barru izanen dute udal hauteskundeak berriz egiteko deialdia, aldi honetan ez baita inor aurkeztu.

• Legasa, Narbarte eta Oierregiko kontzejuetan hautagaririk aurkeztu ezenez, bigarren deialdia izanen dute.

BAZTAN		
13 HAUTETSI Zentsoa: 6.090		
Joseba OTONDO (EH Bildu)		
	2011	2015
B. Auzolan.		1 382 boto
EH Bildu		4 1.449 boto
Ezkerra	2 817 boto	2 595 boto
Geroa Bai		2 618 boto
UPN	5 1.524 boto	4 1.216 boto
Bildu	5 1.487 boto	
NaBai	1 388 boto	
PSOE	0 196 boto	
Baliogab.	42 boto	54 boto
Zuriak	81 boto	94 boto

ARANTZA		
7 HAUTETSI Zentsoa: 531		
Juan Miguel ALMANDOZ (EH Bildu)		
	2011	2015
EH Bildu		7 253 boto
Bildu	7 330 boto	
Baliogab.	52 boto	93 boto
Zuriak	15 boto	29 boto

ARESO		
7 HAUTETSI Zentsoa: 222		
Ur ALGERO (Areso Eraikiz)		
	2011	2015
A. Eraikiz	7 147 boto	7 129 boto
Baliogab.	12 boto	7 boto
Zuriak	13 boto	12 boto

BERA		
11 HAUTETSI Zentsoa: 2.847		
Josu IRATZOKI (EH Bildu)		
	2011	2015
EH Bildu		6 952 boto
Herrirako		4 583 boto
PPN	0 127 boto	0 32 boto
UPN	1 172 boto	1 166 boto
Aralar	4 552 boto	
Bildu	4 612 boto	
EAJ-PNV	2 313 boto	
Baliogab.	44 boto	67 boto
Zuriak	59 boto	94 boto

BERTIZARANA		
7 HAUTETSI Zentsoa: 466		
Andres ETXENIKE (EH Bildu)		
	2011	2015
EH Bildu		7 149 boto
Bildu	4 203 boto	
B. Elkartald	3 137 boto	
Baliogab.	16 boto	45 boto
Zuriak	10 boto	73 boto

DONAMARIA		
7 HAUTETSI Zentsoa: 346		
Maite URROZ (Herriarengatik)		
	2011	2015
Herriareng.	7 228 boto	7 227 boto
Baliogab.	9 boto	6 boto
Zuriak	8 boto	14 boto

DONEZTEBE		
9 HAUTETSI Zentsoa: 1.210		
Xanti UTERGA (EH Bildu)		
	2011	2015
EH Bildu		6 555 boto
PPN	1 107 boto	0 50 boto
PSN.	3 266 boto	
EA	8 596 boto	
Baliogab.	59 boto	41 boto
Zuriak	50 boto	24 boto

ETXALAR		
7 HAUTETSI Zentsoa: 630		
Miguel Mari IRIGOIEN (Herri Taldea)		
	2011	2015
EH Bildu		1 85 boto
Ettxalar Bai		1 100 boto
HerriTaldea	3 205 boto	5 261 boto
UPN	0 46 boto	0 24 boto
E. Aitzinera	1 98 boto	
Independi.	3 160 boto	
PPN	0 5 boto	
Baliogab.	1 boto	14 boto
Zuriak	5 boto	6 boto

GOIZUETA		
7 HAUTETSI Zentsoa: 633		
Unai LOIARTE (EH Bildu)		
	2011	2015
EH Bildu		7 395 boto
Bildu	7 448 boto	
Baliogab.	28 boto	25 boto
Zuriak	16 boto	12 boto

ITUREN		
7 HAUTETSI Zentsoa: 395		
Mari Jose BEREAU (EH Bildu)		
	2011	2015
Bildu	7 204 boto	
EH Bildu		7 205 boto
Baliogab.	46 boto	45 boto
Zuriak	31 boto	23 boto

LEITZA		
11 HAUTETSI Zentsoa: 2.358		
Mikel ZABALETA (EH Bildu)		
	2011	2015
EH Bildu		9 1.193 boto
UPN	1 130 boto	2 252 boto
Bildu	9 1.283 boto	
DNE/NEE	1 188 boto	
Baliogab.	31 boto	95 boto
Zuriak	89 boto	83 boto

LESAKA		
11 HAUTETSI Zentsoa: 2.188		
Jose Luis ETXEGARAI (Geroa Bai)		
	2011	2015
EH Bildu		5 666 boto
Geroa Bai		6 853 boto
Bildu	6 731 boto	
EAJ/PNV	5 670 boto	
PSN	0 77 boto	
UPN	0 46 boto	
Baliogab.	45 boto	50 boto
Zuriak	43 boto	71 boto

SUNBILLA		
7 HAUTETSI Zentsoa: 584		
Ametis INDA (EH Bildu)		
	2011	2015
EH Bildu		7 229 boto
Bildu	7 294 boto	
Baliogab.	28 boto	50 boto
Zuriak	30 boto	69 boto

URDAZUBI		
7 HAUTETSI Zentsoa: 325		
Santiago VILLARES (Azkar)		
	2011	2015
Azkar	4 154 boto	4 151 boto
Elgarrekin		3 123 boto
Urtxume	3 113 boto	
Baliogab.	3 boto	5 boto
Zuriak	11 boto	8 boto


ZUBIETA		
7 HAUTETSI Zentsoa: 243		
Ernesto DOMINGUEZ (Herriko Taldea)		
	2011	2015
Herriko Tal.	5 127 boto	6 145 boto
Zubietarrak		1 43 boto
Eutsi	2 60 boto	
Baliogab.	7 boto	1 boto
Zuriak	5 boto	7 boto

UDAL HAUTESKUNDEAK | 2015/05/24

ZERRENDA IREKIAK DITUZTEN HERRIAK

ARANO: Zentsoa: 98 / Parte-hartzea: 66 / Herri Aierriz: **55 boto (5 ordezkari)** / UPN: 0 boto / Baliogabeak: 1 / Zuriak: 8**BEINTZA-LABAIEN:** Zentsoa: 207 / Parte-hartzea: 110 / Herriarengatik: **70 boto (5 ordezkari)** / Baliogabeak: 7 / Zuriak: 5**ELGORRIAGA:** Zentsoa: 171 / Parte-hartzea: 124 / Elgorriaga (5 ordezkari): **67 boto** / Baliogabeak: 7 / Zuriak: 28**ERATSUN:** Zentsoa: 143 / Parte-hartzea: 83 / Latargi (5 ordezkari): **56 boto** / Baliogabeak: 7 / Zuriak: 5**EZKURRA:** Zentsoa: 148 / Parte-hartzea: 83 / Idoia (5 ordezkari): **31 boto** / Baliogabeak: 2 / Zuriak: 11**OIZ:** Zentsoa: 112 / Parte-hartzea: 78 / Oizko Alkartasuna (4 ordezkari): **43 boto** / Oizko Berrikuntza (ordezkari 1): 25 / Baliogabeak: 0 / Zuriak: 1**SALDIAS:** Zentsoa: 108 / Parte-hartzea: 66 / Independentek (5 ordezkari): **21 boto** / Baliogabeak: 6 / Zuriak: 13**URROZ:** Zentsoa: 158 / Alkartasuna (5 ordezkari): **57 boto** / Baliogabeak: 5 / Zuriak: 5**ZUGARRAMURDI:** Zentsoa: 186 / Parte-hartzea: 115 boto / Akelarre (5 ordezkari): **81 boto** / Baliogabeak: 2 / Zuriak: 8

NAFARROAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK

UPN  **15** %27,3GEROA BAI  **9** %15,9EH BILDU  **8** %14,3PSN-PSOE  **7** %13,7PSN-PSOE  **7** %13,4PP  **2** %3,9izquierda ezkerra  **2** %3,7

NAFARROA (Kontatuak %99,27)

	2015	%
Zentsoa	478.109	100
Partehartzea	338.741	%71,37
Abstentzioa	135.880	%28,63
Baliogabeak	4.259	%1,26
Zuriak	6.564	%1,96
UPN	91.329	%27,30
Geroa Bai	53.034	%15,86
EH Bildu	47.843	%14,30
Podemos	45.848	%13,71
PSN-PSOE	44.916	%13,43
PP	13.080	%3,91
Ezkerra	12.395	%3,71
Bertzeak	19.473	%5,83

• UPN da alderirik bozkatuena, baina 19 parlamentari izatetik 15 izatera pasatu da.

• Geroa Bai da bigarren indarra, 9 parlamentari eskuratu ditu eta EH Bilduk 8.

• Laugarren indarra izan den Podemos taldearekin bat eginda aldaketa eragin dezakete.


• PSN-PSOE bigarren indarra izatetik bosgarren indarra izatera pasatu da.

• PPN eta Ezkerrak bina parlamentari eskuratu dituzte eta Ciudadanos-ek ez du ordezkariarik.


NAFARROAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK ESKUALDEKA




BAZTAN		
		%
EH Bildu	1.255	29,07
Geroa Bai	1.139	26,38
UPN	1.046	24,23
Podemos	311	7,20
PSN-PSOE	138	3,20
Ezkerra	122	2,83
PPN	104	2,41
Bertzeak	110	2,56
Zentsoa	6.065	100
Partehartzea	4.386	72,32
Abstentzioa	1.679	27,68
Baliogabeak	69	1,57
Zuriak	92	2,13




BERTIZARANA		
		%
EH Bildu	1.101	38,07
Geroa Bai	844	29,18
UPN	320	11,07
Podemos	211	7,30
PSN-PSOE	154	5,33
PPN	88	3,04
Ciudadanos	33	1,14
Bertzeak	94	3,25
Zentsoa	4.272	100
Partehartzea	2.942	68,87
Abstentzioa	1.330	31,13
Baliogabeak	50	1,70
Zuriak	49	1,67



BORTZIRIAK		
		%
EH Bildu	1.592	34,42
Geroa Bai	1.579	34,14
Podemos	564	12,19
UPN	403	8,71
PSN-PSOE	165	3,57
PPN	87	1,88
Ciudadanos	66	1,43
Bertzeak	108	2,34
Zentsoa	6.647	100
Partehartzea	4.677	70,36
Abstentzioa	1.970	29,64
Baliogabeak	52	1,11
Zuriak	61	1,30



LEITZALDEA		
		%
EH Bildu	1.366	60,50
Geroa Bai	466	20,64
UPN	203	8,99
Podemos	105	4,65
PSN-PSOE	39	1,73
PPN	26	1,15
Ezkerra	10	0,44
Bertzeak	15	0,66
Zentsoa	3.299	100
Partehartzea	2.288	69,35
Abstentzioa	1.011	30,65
Baliogabeak	30	1,31
Zuriak	28	1,22




URDAZUBI		
		%
Geroa Bai	125	32,89
UPN	85	22,37
EH Bildu	78	20,53
Podemos	33	8,68
PPN	14	3,68
Ciudadanos	10	2,63
PSN-PSOE	9	2,37
Bertzeak	9	2,37
Zentsoa	483	100
Partehartzea	388	80,33
Abstentzioa	105	19,67
Baliogabeak	8	2,06
Zuriak	17	4,38

NAFARROAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK | 2015/05/24

HAUTESKUNDEAK 2015/05/24 → NAFARROAKO PARLAMENTUA

EH Bildu izan da alderdirik bozkatuena botoen %37,43rekin



Bigarren indarra izan den Geroa Baik %28,83 lortu ditu eta UPNk botoen %14,28

	Zentsoa	Partehartz.	Abstentz.	Baliog.	Zuriak	EH Bildu	Geroa Bai	UPN	Podemos	PSN-PSOE	PP	Ezkerra	Ciudadanos	Bertzeak
ARANO	98	66	32	0	2	35	10	6	11	0	0	0	0	2
ARANTZA	530	375	155	7	5	197	118	16	14	8	6	4	0	0
ARESO	222	154	68	0	2	74	39	19	11	3	2	0	1	3
BAZTAN	6.065	4.386	1.679	69	92	1.255	1.139	1.046	311	138	104	122	47	63
B. LABAIEN	207	113	94	1	1	31	34	23	5	2	5	1	3	9
BERA	2.832	1.884	948	18	24	618	504	200	288	85	33	22	49	43
BERTIZARANA	463	300	163	9	10	121	69	38	24	14	3	3	5	4
DONAMARIA	342	246	96	4	6	88	75	23	5	3	12	2	1	27
DONEZTEBE	1.203	928	275	20	14	295	253	142	67	83	23	11	11	9
ELGORRIAGA	171	128	43	4	3	45	29	13	19	4	6	0	0	5
ERATZUN	143	84	59	0	1	13	43	10	8	5	2	0	1	1
ETXALAR	622	485	137	14	16	147	174	53	53	8	13	1	2	4
EZKURRA	148	83	65	0	0	30	15	8	10	3	11	5	1	0
GOIZUETA	633	433	200	6	11	332	61	10	6	3	4	0	0	0
IGANTZI	490	303	187	3	1	101	95	30	36	12	12	7	5	1
ITUREN	395	277	118	6	2	163	67	10	12	11	3	0	1	2
LEITZA	2.346	1.635	711	24	13	925	356	168	77	33	20	10	2	7
LESAKA	2.173	1.630	543	10	15	529	688	104	173	52	23	16	10	10
OIZ	111	74	37	0	0	25	23	9	9	2	0	1	4	1
SALDIAS	108	67	41	0	0	33	15	4	11	1	2	0	1	0
SUNBILLA	582	350	232	5	3	141	133	24	22	12	6	2	1	1
URDAZUBI	303	274	39	7	14	45	102	65	12	7	8	2	9	3
URROZ	158	101	57	0	5	27	32	9	7	5	4	2	3	7
ZUBIETA	241	191	50	1	4	89	56	7	12	9	11	0	1	1
ZUGARRAM.	180	114	66	1	3	33	23	20	21	2	6	2	1	2
Denetara	20.668	14.615	6.063	209	245	5.392	4.153	2.057	1.224	505	319	213	159	205

**Nire txanda**

Koro IRAZOKI

Komun berak denentzat

Ostatu eta toki publikoetan dauden komunetaz ari naiz. Binaka agertzen zaizkigun komun horietaz. Ate batean gizonezkoa eta bertze atean emakumezkoa irudikatzen duten horietaz.

Normaltasunez ikusten dugu desberdintze hori, baina, benetan normala da?. Pixa eta kaka egiteko ere *klasifikatu* behar gara “ni neska naiz” eta “ni mutikoa naiz”?

Eta bertze gauza bat: ostatuetan, nesken komunetan sortzen diren ilarak ere aipatu behar dira, mutikoena huts-hutsik dagoen bitartean! Hori ez da batere praktikoa. Beraz, bi komunak denentzat izatea proposatzen dut nik.

Egia da gizonezkoen pixa egiteko tramankulua diferente dela, eta zutik pixa egiten dutenean bazterrak “kaltetuak” izaten direla. Baina ez dakit ba, kasu pittat emanez, eta punteria pittat izanez gero, ez dirudi afera zaila izan behar duenik. Edo bestela, jarrita ere pixa egin dezakete (non dago arazoa?, galtzak jautsi behar dituztela?).

Bon, tokia finitzen ari zait. Komun berak denentzat, hortxe uzten dut gai hau, eztabaidarako.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Baietz denak irabazle!

Hau idazterakoan ez dakit oraindik navarrrisi-mo izaten segitzen dudan edo euskaldun, ezkertiar, abertxale, sasipoeta eta mariozarpailen arteko koalizio maltzuraren batek sustatutako kaosean murgiltzeko puntuan nagoen. Ezinegon horretan nahiago, halere, aste honetan izanen dugun zifra-xaltxa eta soziologoaren balorazioen aldean. Horra nere apustua: Baietz denak irabazle!

Nabarmentzekoak

**Jose Luis ECHECHIPIA**
Bidasoaldeko organoak

Bidasoaldeko organoen inguruko *Haizea eta ura* dokumentala aurkeztu du Iruñeko musikariak Beran. Euskarazko eta gaztelarazko bertsoiak ditu Berako Udalak sustatuko ikusentzuneak.

**Miren OLAETXEA**
Goienar-i buruz informazioa

Goienar Energia Kooperatibari buruzko informazioa eskainiko du etxalartarrak hilabeteko lehen ortziraletan 18:00etatik 20:00etara Bidazi elkarteak Alkaia-gan duen azokan.

**Iñaki TELLETXEA**
Elizondoko korrikalaria

Ez du garaipenik lortu, baina asteburu berean, bitan igo zen podiora. Hirugarren izan zen Urdazubiko kontrabandistaren lasterketan eta biharumenean ere hirugarren Irurritako Lasterketan.

Aztera begira → 2005-VI / LURRA 38 zk.



Manex Bergararen oroimenez liburua Saran

Manex Bergara, Sarako bertsu idazlea herriak azken urteetan kultur mailan ukan zuen pertsona inportanteenari buruzko liburua aurkeztu zuten duela hamar urte ekainean. Bi urte lehenago hil zen Manex, argazkian ageri diren Marie Pierre Pradere eta Mixel Gerendiainekin batera, bere bertsuak biltzeko proiektuan ari zela. Marie Pierre eta Mixelek segitu zuten lanean eta *Gauza ageria!* liburua aurkeztu zuten. «Liburu honek bi zentzutan kurritzen du, merezi zuen omenaldia da eta denbora berean, guretzat, Sara, Lapurdi edo Euskal Herriarentzat ekarpen bat da, Lapurdiko hiztegia eta istorioaren aldetik», zioten.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Nerea Alzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Martin Laralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztexea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiako Akelarre elkart, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leizta	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Kolaborazioak

Zuhaitzak eta arbolak

Xanti BEGIRISTAIN MADOTZ

Garai batean entzuten zen zuhaitza zela basoko edo oihaneko landare handia, eta nolabait esateko, frutarik ematen ez zuena, konparaziora, zumarra, pargoa, haritza... Eta, aldiz, frutak ematen dituztenak, haiek arbolak edota fruta arbolak omen ziren, esaterako, sagarrondoak, udareondoak, intxaurrondoak, aranondoak... Baina, polemika horretan sartu gabe, ikusten duguna da izadia, natura, aste hauetan, latitude eta altitude hauetan lehertu egin dela udaberriaren etorrerarekin. Hiri, herri, landa-gune eta mendietan nabarmena da nola dagoen landaredia guztia indar betean.

Herri eta hirietan gaur egun, eta segur aski aspalditik, zuhaitz, zuhaixka eta mota askotako landare ugari jartzen dira, eta hori oso mesedegarria da, ez bakarrik izadiarentzat, baizik eta baita bizidun guztientzat ere. Zuhaitzek eta zuhaixkek gauza on asko ematen dituzte: egurra, zura, hostoak, abarrak, adaxkak, itzala, oxigenoa, babesa pertsona eta animaliei, frutak, fruituak, estetika eta edertasun jakin batzuk, eta abar eta abar.

Hiriak aintzakotzat hartuta, neronek hobekien ezagutzen dudana, ziur asko, Iruñea izanen da. Baina, gai honetan, badaude bi kontu asko konbentzitzen ez nautenak, alegia, lehenengoa da, normalean bertako landaredia baztertu eta ezkutatu egiten duena, eta bigarrena, frutak eta fruituak ematen dituztenak, era berean ere, baztertu eta errefusatu egiten dituenak. Konparaziora, Iruñean oso zaila izaten da ikustea hemengo espezieak, esate baterako, pagoak, haritzak, astigarrak, zumarrak, izeiak, ler beltzak, ler gorriak, lizarrak, eta bat eta beste. Eta beste horrenbeste gertatzen da fruitu eta fruta arbolekin, hau da, Iruñean zaila gertatzen da ikustea, adibidez, intxaurrondoak, gaztainondoak, hurritzak, sagarrondoak, udareondoak, aranondoak, gereziondoak, pikondoak, elorri beltzak, mahatsondoak...

Egia esateko, aitortu beharra dago, azken urte hauetan hasi naizela ikusten salbuespen batzuk, konparaziora, Etxabakoitz auzoan, Arga pasealekuan, Lezkairu eta Mutiloa artean, Sarrigurenen eta beste nonbait.

Inolako eragozpenik gabe onartzen dut zuhaitz exotikoak landatzea eta baita fruta eta fruiturik ematen ez dituztenak ere, baina akats handia iruditzen zait horiek soilik birlantatzea. Zergatik ez, bertako-bertakoak eta fruitu-frutak ematen dituztenak ere? Neronek oso onuragarri ikusten dut azken hauek ere landatzea herri, hiri eta auzoetan.

Inork, agian, esan lezake gizalege gabeko jende asko dagoela, eta, frutak eta fruituak hartzeagatik adarrak, zuhaitzak eta zuhaixkak berberak ere hautsi eta hondatu ahalko lituzketela pertsona horiek, baina nik uste dut hori ere alde positibotik begiratu eta hartu beharko genukeela, alegia, landare horiek denenak eta publikoak baldin badira, herri-tar gehienek ikasiko lukete pixkanaka-pixkanaka zuhaitzak eta baloratzen, errespetatzen, zaintzen eta ez hartzen behar duten fruitu-fruta baino gehiago.

Uste dut gizaki gehienengan jarri ahal dugula konfiantza, gai hauetan ere, beste gai askotan jartzen dugun bezala-bezalaxe. Halaber, honek guztiak, iruditzen zait, herri, hiri eta auzoei nortasun eta izaera bereziak ematen dizkiela.

Ion zikin-en bertze istorioa

Joseba URROTZ

Mikel eskolatik etxera ailegatu da eta amarekin solasean hasi da:

– Badakizu amatxo, andereño Laurak erran digu eza gutzen duela mutiko bat Ion zikin deitzen zaiona.

– Ah bai? Ta zergatik deitzen diote horrela?

– Ba zikiña delako, beti eskuekin jaten duelako eta karrikan putzuetan sartzen delako.

– Begira Mikel, jaiotzen garenean ez gara zikiñak, eta ezta gauza polita inori “zikin” deitzea, ttikia edo haundia izan.

– Bai amatxo, biño bere ama haserratu eta errietan egiten dio eta hala ere ez du kasurik egiten.

Amak hausnartzeko tartetxo bat hartu eta azaltzen saiatu da.

– Ion ez da gaixtua, bere amatxo haserratzen da Ion-ek ez duelako bere errana betetzen, biño haserretzen garenean ez gaude barrendik ongi, eta gauzak ez dire ongi konpontzen. Zu haserretzen zarenean gustora egoten zara?

– Ez... –Ion pentsari, ezpainak luzatuta...– Biño ama, behin maitagarriak erran zion berak gela atonduko zio-la eta joateko bere anaiakin jostatzeraz. Ion-ek galdetu zien kattagorri, txori eta katuari ea bere anaiak ziren eta denek ezetz. Ta gero xerriak erran zion bere anaia zela, bera bezala zikiña zelako. Eta ordun itxera joan zen negarrez eta geroztik garbia da eta gela txukuntzen du.

– Mikel, nik ezagutzen dut zure andereñoak ezagutzen duen mutiko hori, Ion alegia. Erran dizuten bezala, jaiotzen garenean ez gara ez zikiñak ez garbiak, gero ikasten dugu gauza bat edo bertzia, gehienbat gurasoengandik. Ion zikiña bada eta ez baditu gauzak bildu nahi, seguraski barrendik triste dagoelako da, eta akaso gurasoek kasu egin diezaioten egiten du hori. Ion-ek amak ttikitan ez zuen bere amaren goxotasuna eta maitasuna hartu eta berak ere ez du jakin Ion-eri aski berotasuna ematen eta lekua ematen.

– – Ion ixilik begiak zabalik entzuten.

– Gainera, Ion-ek aita denbora luzez egoten da etxetik kanpo, eta etortzen denean nekatua dagoelako ez dio kasu haundirik egiten. Berak ere gauzak ez ditu txukun izaten, eta Ion-ek nahiago du bere aitak bezala egin.

– Orduan amatxo, maitasuna da behar duguna? Zuk eta aitaxok ere bai?

– Horixe Mikel, denok behar dugu maitasuna, zenbat eta maitasun ta berotasun guttiago, orduan eta tristezia eta haserre gehiago. Inork ez dugu maite haserre egotea. Gañera, ohiuka eta negarrez ikasten diren gauzak, ez dira hain gustora egiten. Begira, oraintxe bertan utzi duzu motxila idekia eta egongelako lurrean, itsiko dugu gauzak ez erortzeko eta logelako mahai gainean utzi, berekin ez muturkatzeko?

– Bai Amatxo...!

Mikelek bere ama besarkatu du pozik.

Irakurleak mintzo

Berako udala
badoa, beilatokia
gelditzen daOskar URKIOLA (Berako
Iturlandetako bizilagunen
izenean)

Badoa Aralar eta PNVk legealdi honetan Berako udalean osatu duten aginte koalizioa, bai, ez dira Udaleko hauteskundeetan aurkeztuko. Badoaz baina hemen gelditzen da, Iratxek utzi gaituen mokordoa, gure auzoko beilatokia.

Ez zaizkigu ahantziko Alkate andereak errandako hitzak "egiten ahal nuen baina ez nuen egin". Gure eskaeraz eta 1000 sinaduraz ari zen eta argi gelditu da ez duela deus egin eta gainera harro dagoela bere jarreraz. Marroi galanta utzi dio hurrengo agintariei.

Gure partez agintari berriei, gure sinadurakin, zera eskatu nahi diogu, aditu gaitzatela eta gure jarrera ulertu dezatela eta gero aitzinekoak egin ez dutena, egin dezatela, eztabai datu, herria errespetatu, bitartekaritza lanak bete eta erabaki.

Ez Udalak ez Iratxek ez gaitu inoiz errespetatu, ez gaitu kontutan hartu eta gurekiko entzungor jokatu dute. Ez dute ezta gure eskaintzak eztabaidatu nahi izan ere.

Arartekoak gure aldeko txostena eman zuen eta txosten hau Estrasburgora bidaltze-

ko asmoa agertu du.

Udalak dagoeneko eman dio irekitzeko baimena, Iratxeri, eta guri ateak itxi dizkigute.

Baina jakin ezazue Iturlandetako bizilagunak helegitea aurkeztu dugula Nafarroako Auzitegi Administrazioan eta helegitea onartua izan dela, noski, arrazoi faltarik ez dugulako.

Joan den urteko abendua ezker Berako udalan beilatoki berri bat eraikitzeke eskaera badago. Honen kokapena Nabasturen inguruan dago. Hagitz zorrotz jokatzeko ari dira eskaera honi baimena emateko. Errepideari, Urkonfederazioari, hondoko bizilagunei denei eskatu behar izan diote bere baimena. Hagitz ongi iduritzen zaigu, baina zergatik ez da gure auzoko beilatokiarekin jokaera berbera agertu. Agian luzatu eta luzatu ari dira baimena ez emateko legealdi honetan? Arrontean desberdin jokatu dute Udaleko agintariak oraingoan.

Iratxek beilatokiak, irekieraren lizentzia duen ezker eta norbait zendu den aldiro, hauek sendiari Iturlandetako instalazioak eskaini dizkiote eta orain arte, hauek, momentu latzetan ez diote jaramonik egin. Guk famili hauei gure eskerrak eman nahi dizkiogu eta beratar edo Bortzirietako hiritar guztiei laguntza ematen segitzea eskatzen diogu.

Eta berresten dugu,

behin eta berriro ez dugula beilatokirik nahi etxe-bizitzeko azpian.

Ez hemen eta ez inon.

Bortzirietako
herritarrei
eskertzaJose Antonio MOZO
(Lesakako medikua)

Jose Antonio Mozo Lorenzo naiz, Lesakako medikua, pediatra... Gutun hau idatzi dut Lesakako jendeaz agurtzeko. Arrazoi profesionalak tarteko banoa Lesakako kontsultatik, Isabako larrialdi zerbitzuetan etapa berri bat hasiko dut eta. Lau urtez egon naiz Lesakan lanean, ia bi daramatzat bertan bizitzen eta jende paregabea ezagutzeko aukera izan dut. Agurrak ez ditut maite, horregatik nahiago laster arte erran.... Izan ere ez dakit etorkizunean berriro ere Lesakako kontsultan lan egingo ote dudan. Baina gogoz izan, egunen batean Isaba inguruan bazabiltzate, esku zabalik hartuko zaituztedala. Begirunez, Jose Antonio Mozo Lorenzo.

Ttipi Txartela
bidean

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA

Aste honetan hasiko gara Ttipi Txartelen lehenbiziko remesa etxeetara bidaltzen (lehenbiziko 1.900 Ttipi Txartelak). Bertze urtean apirilean zehar bidaltzen ditugu baina aurten, aunitzez ere gehiago egin direnez, denbora gehiago joan zaigudena prestatzen. Aste honetan, aldizkaria banatu bidenabar, guk bidalitako bertze sobre bat ere hartuko dute txarteldun gehienek. Sobre horren barrenean izanen duzue Ttipi Txartela eta deskontuak eskaintzen dituzten komertzioen berri ematen duen folletoa. Irakurri folletoa eta eraman txartelarekin batera karteran, batez ere txartela eraman, gero komertzioetan erakutsi ahal izateko.

Ttipi-Ttapa Fundazioak euskara eta herrietako ekonomia lagundu nahi ditu.

Horretarako sortu zuen Ttipi Txartela: Ttipi-Ttapa ekonomikoki laguntzeko, herrietako denda eta zerbitzuak bizkortzeko eta, azken finean, zuek, Ttipi-Ttapa Fundazioa laguntzen duzuen horiek, merkeago erosiko duzue etxean jasoko duzuen eskuorrian ageri diren dendetan.

Deskontuak, zozketak... Ttipi-Ttapa guztietan Ttipi Txartelaren informazioa argitaratzen da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzuen deskontuak oroitaraziz.

Gainera, Ttipi-Ttapa Fundazioa laguntzen dutenek (MEKNA) aldizkaria musutruk hartuko dute eta 2015 urteari dagokion errentaren aitortpenen %80ko desgrabazioa izanen dute.

Mila esker eta aprobetxatu itzazu Ttipi Txartelak eskaintzen dizkizun abantailak, Ttipi Txartela onartzen duten denda eta zerbitzuetan erosiz.



IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.eus**
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**


Prentsatik bildutakoak



«Batez ere arrazoi pertsonal eta akademikoengatik joanen naiz. Hemen lagun oso onak ditut, familia hurbil dago, orain arte ikasketetan murgildua nengoen eta 9 urte nituen Iruñean, Doneztebetik oso hurbil. Hartu beharreko erabaki pertsonala zen. Hemen baino hobe ez naiz egonen, baina bizian hain gus-toko ez direnak gauzak egin behar dira»

Ibai MEOKI

Eskubaloia jokalaria
D.NOTICIAS 2015.05.16



«Egun erremontetik bizitzea ezinezkoa da, egoera asko aldatu ezean behintzat. Lehen apostua zegoen, sarrerak... Ohitura horiek zituen jendea desagertu egin da. Batetik, adinarengatik, eta bestetik, egoera ekonomikoarengatik. Produktua jota dago, modatik pasatzen ari da. Zuzeneko ikuski-zun guztiak, oro har, garai txarrak pasatzen ari dira».

Koteto EZKURRA

Doneztebeko pilotaria
BERRIA 2015.05.19

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

Uff! Nahi baduzu kafe bat hartze-
ra gonbidatuko zaitut eta zuk defi-
nitu nazazu.

Zein afizio dituzu?

Musika jarri eta korrika egitea, men-
dian ibiltzea, eskiatzea, bidaiatzea
eta leku ezberdinak ezagutzea, os-
tiraletako pintxo potea, familia eta
lagunekin gauzak konpartitu eta bi-
zitzea...

Astebururako planik hoberena?

Presarik gabe esnatu, laranja zu-
kua eta kafesnea gosalduz egun-
karia irakurri, Plazaolatik lasterkal-
di txiki bat, arratsaldean familiare-
kin zinera eta eguna bukatzeko
bokata bat herrian.

Ongi ezagutzen dituzu EH Mendi erronkaren barrenak..

Aurten III. lasterketa izango da.
Lehenengoan boluntario
aritu nintzen eta azkeneko
biak antolakuntzan.

II. Lasterketa bukatu
zenean antolaketa
sendotzeko jendea be-
har zela komentatu
zuten. Eta nola ez,
erronka hartu nuen.

Zer du berezi EHMEK?

Mendi lasterketen es-
parruan Euskal selek-

zioaren aldeko aldarrikapena, jaia
eta kirola uztartzen dituela.

Zer topatuko du egun horretan Lei- tzara doanak?

Proiektua bere egin duen herria,
boluntario pila bat lanean eta giro
bikaina.

Nolako antolakuntza eskatzen du?

Lan asko dago lasterketa honen
atzean, baina oso eramangarria da
dugun lan talde eta boluntario bi-
kainekin, 350 boluntariotik gora.

Lasterketaren izenburuan erron- ka... euskaldunontzat amu ona da?

Kar, kar... erronka bat da.

Ibilbideko punturik ederrena?

Paraje zoragarri asko daude eta
ikusleei aukera paregabea eskain-
tzen die, leku ezberdinetan laster-
kariak pasatzen ikusi daitezkeela-
ko. Kilometro bertikala adibidez.

Zerk sortzen du neke gehia- go antolakuntzak edo 65 km-ak egiteak?

Biak uztartzeak. An-
tolakuntzako 3 lagu-
nek egingo dutela laster-
keta.

Amets bat?

Lasterketa sendo-
tzea, egonkortzea
eta emakume-
en parte-har-
tzea indartzea.



Junkal OTXOTORENA → Leitzako EHMEko antolatzailea

LABEZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta
Instalazio Elektrikoak

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

ERANDONEA, s.l.
BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

ERREKALDE
PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
BOKATXAK
TFNOA: 948 630 259 BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
KATEA-BIKE
bizikletak, osagarriak eta rock&roll!!!
CANDY ORBEA
MASSI
SCOTT MERIDA

ERROTARZAR
harategia
Bertako
produktuak
Eztegara, 3 · BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

BERA

UDALA → GEHIENAK FRANKISMOTIK ESKAPO JOAN ZIREN IPAR EUSKAL HERRIRA ETA HAN NAZIEN ESKUETAN ERORI ZIREN

Hamasei beratarrek jasan zuten kontzentrazio esparruen ankerkeria

Bigarren Mundu Gerrako biktimak oroitzeko mozioa onartu du Berako Udalak

TTIPI-TTAPA

70 urte bete berri dira II. Mundu Gerra bukatu zela 184 euskal herritar erail eta ehundaka atxilotuta eduki zituzten nazien kontzentrazio esparruetan, tartean beratarrek. Horietako gehienak frankismotik eskapo joan ziren Ipar Euskal Herrira eta han nazien eskuetan erori ziren. Bi diktaduren biktima izan ziren.

Memoria historikoa berreskuratu, justizia eta erreparazioa egiteko bidean, Berako udalak, urteurren honen aitzakian, gogora ekarri nahi izan ditu II. Mundu Gerran deportatu, desplazatu, atxilotu edota erail zituzten euskal herritarrek, eta bereziki, beratarrek.

Datu guztiak biltzeko zailtasunak dauden arren, gutienez hamasei beratarrek pairatu zuten kontzentrazio esparruen ankerkeria. Alemaniako kontzentrazio esparruetan izan ziren Eugenio Alli Ferrero, Antonio Clemente, Jose Rubio Delgado, Francisca Usandizaga eta Victor Garcia-Serrano Retegi eta Gurseko kontzentrazio esparruan (Biarnon preso kon-

tu zituzten 6.555 euskal herritarren artean) Isidoro Fagoaga tenore ospetsua, Faustino Alli Ferrero, Tomas Apat Telletxea, Severo Apat Telletxea, Saturnino Apat Telletxea, Saturnino Garbala Ardanaz, Eugenio Garcia de la Lasta, Jose Garcia Fernandez, Francisco Jauregi Telletxea, Jose Sanchez Telletxea, Jesus Telletxea Ordoki eta Juan Vallejo Corrales. Batzuk aske utzi zituzten, berriz batzuk erail eta berriez desagertu eta onik atera ziren edo hil ote zituzten daturik ez da.

MOZIOA

Berako Udalak onartutako mozioaren arabera, Frankismoaren eta nazismoaren biktima

izan ziren euskal herritar eta beratar guztiak oroimenera ekarri nahi dituzte, «jasandako bi-degabekeria, sufrimendu eta erailketa injustuak salatzearekin batera». Nazismoaren eta frankismoaren biktima izan zirenek egia, justizia eta erreparazioa izateko duten eskubidea aitortu eta Alemania eta Espainiako estatuei aitortzen hori egiteko exijitu die Udalak eta horrelakorik berriz gerta ez dadin, «gizarte bakezale, berdinzale eta justuago bat eraikitze konpromisoa» berretsi du. Berako espazio publikoan biktima horiek guztiak gogora ekarriko dituen aipamen edo oroigarri bat paratzeko konpromisoa ere hartu du Udalak.

FLASH

Haizea eta ura dokumentala

Bidasoaldeko organoen inguruko *Haizea eta ura* dokumentala egin du Jose Luis Echechipiak Udalak sustatuta. Kultur etxean estreinatu zuten maiatzaren 23an. Dokumentala euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan egin da.

Bertso jaialdia ekainaren 6an

Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Miren Amuriza eta Xabier Terreros ariko dira kantari ekainaren 6an, arratsaldeko 8etan Kultur Etxean hasiko den bertso jaialdian. Kultur Batzordeak eta Udalak, Nafarroako Antzoki Sarearen laguntzaz antolatutako saiora sartzeko 3 euro ordaindu beharko da.

Igerilekuen irekiera

Ekainaren 9an irekiko diren igerilekuetarako abonamenduak ekainaren 1etik 8ra egiten ahal dira kiroldegian eta ekainaren 9tik aitzinera igerilekuan bertan. Ikastaroetako izen-ematea (igeriketa, aquaerobika...) ekainaren 8tik 19ra zabalduko da.

Udako kontzertua

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolako ikasleek ekainaren 9an, 18:30ean eskainiko dute udako kontzertua Kultur Etxean.

MEKNA
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

Bagoaz, baguzi, bagazi
ttipi-ttapa haziz!

ADI BORTZIRIETAKO HARPIDEDUNAK!!!

Nafarroako Gobernuak 'gizarte-intereseko' deklaratu du Ttipi-Ttapa Fundazioa eta, hartara, gobernuak babesten dituen MEKNA proiektuen artean sartzeari lortu dugu (Nafarroa osoko beste 91 proiektuekin batera).

Horren arabera, MEKNA dauden proiektuei emandako laguntza edo donazioek %80 desgrabatzen dute errentaren aitorpenean.

Hau dela eta, oraintxe duzue aukera bikaina Ttipi-Ttapa laguntzeko.

Urtean **50 euroko donazioa egin** eta, hurrengo urteko errentaren aitorpenean **40 euro jasoko duzu bueltan**. Gainera, 50 euroko donazioa egitea erabakitzen duzuenok Ttipi Txartela ere jasoko duzue opari. Txartel honekin, eskualdeko hainbat komertziotan deskontuak izanen dituzue eta hamabostero zozketa batean parte-hartuko duzue.

Deitu 948 635458 telefonora eta informatu (08:00etatik 16:00etara)

LANA → 2015 ETA 2016RAKO BALIAGARRIA

Lan hitzarmen berriarekin kontent daude Funveran

Balorzio positiboa egin dute ELA eta LAB sindikatuek

TTIPI-TTAPA

Funvera enpresako langileek biltzarrean erabaki dute onestea Enpresa Batzordearen eta Zuzendaritzaren artean lorturiko akordioa, hitzarmen kolektiboa berritzeko. Akordioa hagitx ontzat jo dute ELA eta LAB sindikatuek.

Akordioak bi urteko indarraldia izanen du (2015 eta 2016) eta artikulatu berri batek mutualitateen kudeaketa mugatzen du. Horren arabera, gaixotasunen (lanbidearena eta lanbidearena ez dena) bajen kudeaketa eta kontrola sistema publikoaren baitan geratuko dira. Urteko lanaldia 1.695 ordukoa izanen da eta soldata igoera, 2015ean %1ekoa eta 2016an

%1,5ekoa izanen da. Hitzarmenaren indarraldian behin-behineko kontratua duten 10 langileri kontratu finkoa eginen diete, haietako sei-ri txanda-kontratuen bidez. Gainera, hainbat hobe-kuntza egin dira hitzarmenaren atal desberdinetan.

Akordio berriarekin enplegu duina eta kalitatezkoa lortu dela uste du ELAk: "Enpresa-eredu horrek etenaldi bat izan zuen krisiaren erdialdean, 47 langile kaleratu zituztenean. Lankide haiek itzultzea lehentasunezkoa izan da beti ELarentzat. Hitzarmen honen bidez lankide haien erdiak itzuliko dira berriro Funverara". Mutualitateen erreforma ez dela aplikatuko eta horri garrantzi berezia eman dio LABek, «mutualitateen erreforma hau langileen osasunaren kontrako eraso zuzena delako».



Ba al zenekien

Maiatzaren 28an, ortzegunean 19:30ean hasita egingen duela Kaxerna irrati libreak bere lehen emanaldia, FM 102.5ean. Hilabeteko azken ortzegunetan egingen dituzte saioak.



UTZITAKO ARGAZKIA

164 txirrindulari Felix Errandonea Memorialaren 38. edizioan

Junior mailako txirrindulariei zuzendua, Felix Errandonearen omenezko 38. lasterketa burutu zen maiatzaren 9an. Euskal Herriko txapelketarako baliagarria zen eta 164 korrikalari atera ziren, tartean emakume bakarra, Reyno de Navarra taldeko Ane Iriarte. Fotofinisharekin erabaki zen sprintean Jokin Aramburu (Zarauztarra) nagusitu zitzaion Iñigo Elozegi (Autonervión) eta Jokin Alberdiri (Andoaingo). Taldeka Andoaingo izan zen garaile.

MAIATZAREN 30EAN

Euskal Herri osoko 300 bat solaslagun espero dituzte larunbateko Mintza Egunean

TTIPI-TTAPA

Euskal Herri osoko mintzlagunak bilduko dituen Mintza Egunean hamargarren edizioa maiatzaren 30ean ospatuko da Beran, *Mingainak dantzan* izenburupean. 250-300 solaslagun espero dituzte larunbatean.

Larunbat goizeko 11etan ongi etorria eta hamaiketako Rikardo Baroja eskolan. Sarako Txalapartariak, Bortzirietako Bertso Eskolak, Baztango Fanfarre Mi Fak eta eskualdeko Solaslagunek parte hartuko dute bertan. Herriko Ikastetxeko haurrek egindako marrazkiak ere banatuko dira, eguneko egitarauarekin. Horrekin batera, Euskal Herriko txoko guztietatik datozen mintzlagunei hamaiketako eskainiko zaie.

12:00etan herria eta ingurua eza-gutzeko bi ibilbide kultural antolatuta dituzte: *Bera altueratik*, Lekueder eta Garmendiko Bordara bisita. Kaxerna Gaztetxekoek bere egoitza erakutsiko dute. Bertze ibilbidean, *Karriketatik xokoz xoko* ibiliko dira solaslagunak. Itzea aldera hurbildu eta Barojarren eta sorginen berri izanen dute, elizako organo berezia entzun eta San Migel zubiko historiak eza-gutuko dituzte herritarren eskutik.

13:30ean Mintza kalejira-poteoa fanfarrearekin.

15:00etan bazkaria Herriko Etxeko plazan (euria egingen balu bazkaria eskolako frontoian).

16:30ean esker emate ekitaldia.

17:00etan dantzaldia Oharkabe taldearekin.

Xirgil
Jaloste Goya

Altzate 1 - BERA
Tfnos: 948 631 462

elika
Dietetika eta elikadura

IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221

Itzea, 6 behea 31780 BERA
t. 948 631 283 | 645 708 512
e. elikabera@hotmail.com

Arturo

Arropak | Etxerako osagarriak | Lentzeria | Mertzeria

Altzate, 20 BERA T. 948 630 136

LESAKA

KULTURA → HELDU DEN URTEKO MAIATZEAN

Emusik 2016 jaialdiaren emanaldi bat eginen dute Harriondoan

Hitzarmena sinatu dute Udalak eta Donostiako Musika eta Dantza Eskolak

Aitor AROTZENA

Emusik 2016 Jaialdia, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua proiektuaren barrenean burutuko da. Udalak eta Donostiako Musika eta Dantza Eskolak, elkarlan hitzarmena sinatu zuten maiatzaren 18an. Hitzarmen horren arabera, Emusik jaialdiko mikroegoitza izanen da Harriondoa Kultur Etxea heldu den urteko maiatzean.

Maider Arrieta kultur zinegotzia eta Mikel Mate, Donostiako Musika eta Dantza Eskolako zuzendariak sinatutako hitzarmenaren arabera, udalak emanaldiak ego-

ki iragartzen direla bermatuko du eta mikro egoitzara gonbidatutako Europako taldeei udalerriri buruzko informazio turistikoa eta kulturala bidaltzea. Modu berean, emanaldietan bertako taldeak sartzeari bideratuko du Lesakako Udalak eta talde horiek gonbidatutako talde europarrekin batera kanturen bat jo beharko dute.

Rosa Jové Harriondoan

Haurren haziera eta hezkuntzaz hainbat liburu idatziak dituen Rosa Jové psikologoa hizlari izanen da maiatzaren 30ean, larunbatan 18:00etan Harriondoan, Dasya zentruaren eskutik. Hezi: maitasunez, ulerkortasunez eta jakinduriarekin moldatu solasaldia eskainiko du. Ludoteka zerbitzua ere eskainiko dute doan.



ARGAZKIA: A. AROTZENA

Maider Arrieta eta Mikel Mate, hitzarmena sinatu ondotik.



UTZITAKO ARGAZKIA

Beti Gazteko mendi taldeak herritik Zarautzerako bidea egin du kostaldetik, hiru etapatan. Argazkia, Zarautzera ailegatu zirenekoa da.

BETI GAZTE ELKARTEAREN 75. URTEURRENEKO EKITALDIAK

Jokalarien bilkura eta margoketa azkarreko lehiaketa ekaineko lehen asteburuan

A. AROTZENA

Beti Gazte elkartearen 75. urteurreneko ospakizuneko ekitaldiek ez dute etenik. Ekainaren 6an Beti Gazteren Eguna berezia izanen da aurten ere. 08:00etan mendi bueltan abiatuko dira. Egun horretan jokalariek eta jokalariek ohien bilkura egingen dute. 10:30ean hasita, Mastegin, gaur egungo eta garai bateko futbolarien arteko partidak jokatuko dituzte. Lehenik gizasemeak ariko dira eta gero emakumeak. 13:30ean Elutxa txaranga ibiliko da eta gero herri bazkaria frontoian. Txartelak herriko ostaluetan paratu dituzte salgai.

Elias Garralda margoketa azkarreko lehiaketa biharamunean egingen dute. Helduek igande goizeko 8:30etik 10:00etara zigilatuko dituzte

bere lanak eta 13:30etik 14:00etara aurkeztu beharko dituzte egoitzan. Aurkeztutako lanekin erakusketak ikusgai jarriko da Alondegiko arkupetan eta epaimahaiak 18:00etan ezagutzera emanen ditu emaitzak. Lehen saria 500 eurokoa izanen da, bigarrena 300 eurokoa eta herriko margolarien artean obrarik onenak ere 150 euro izanen ditu saritzat.

Lehen Hezkuntzako ikasleek ere parte har dezakete egun berean egingen den Haur Margoketaren Egunean. 11:00etatik 13:00etara egingen da lehiaketa. Margolanen gaia Lesaka izanen da. Hiru mailatan bereziko dira partehartzaileak eta maila bakoitzean marrazki onenarentzat saria izanen da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sanferminetako kartel eta azal irabazleak jakinarazi dituzte

Sanferminak iragarriko dituen kartela eta besten programako azala eta kontrazalean joan diren irudiak aukeratu dituzte. Karteletan, Juan Carlos Pikabea Zubiri margolariaren *Bestaren soinua* izan zen lehiaketako irabazlea. Programaren azalerako, Iraia Etxabide Etxeberriaren *Lesaka gorritz jauntzirik* lana aukeratu dute eta gibealeko alderako Monica Pikabea Perinneren *Besta erraldoia*.

ETXALAR

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 7AN

XXIII. Gasna eta Eskulan FERIA prest du Altxatak

Irune ELIZAGOIEN

Ekainaren 7an egingen da Altxata elkarteak antolatutako gasna eta eskulan feriarekin 23. edizioa, beti bezala, egitarau zabalarekin:

- 10:30etik 14:00etara Eskulangileen erakusketa eta salmenta.
- 10:00etatik 11:30ak arte eskualdeko ardi gasna lehiaketarako gasnen harrera.
- 11:30etik aitzinera Etxalarko II. Goxo Topaketa. Aurten Sagar Tarta izanen da egin beharrekoa. Pastela eta errezeta ekarri behar dira. Parte-hartzaileak, eskulangileen produktuez osatutako saski baten zozketan sartuko dira.
- 11:30ean Agility erakustaldia plazan. Txakur trebeziaren erakustaldia, Etolcanin agilitate taldearen eskutik.
- 12:30ean herriko trikitilarien saioa.
- 13.30ean XXIII. Ardi Gasna Lehiaketako sari banaketa.

- 14:00etan Herri Bazkaria.
- 18:30ean Etxalarko Dantza Taldearen emanaldia.

Goizez baserriko lan tresnen erakusketa egingen da Iriondoan eta egun osoan, eskulan ikastaroko lanen erakusketa eskola zaharretan.

Megalitoak ezagutzeko ibilaldia

Etxalarko naturzaleak antolatuta, maiatzaren 16an herriko ondarea ezagutzeko ekitaldi berri bat egin zen: Megalitoak ezagutzeko ibilaldia hain zuzen. 12etan Kultur Etxean irudiak ikusiz azalpenak eman zituzten, eta bazkalon-



ARGAZKIA: BENANTXIO ELIZAGOIEN

Kantu bazkaria Larraburuan

Maiatzaren 9an 60 lagun baino gehiago bildu ziren Larraburuko kantu bazkarian eta giro ederrean pasa zuten arratsaldea Hendaiaiko kantariekin.

doan, ibilaldia egingen zuten Orizki auzoko megalitoak ezagutzeko.

Elizagoiaren ahizpen kontzertua herriko

Pintxo potea izanen dela aprobetxatuz, ekainaren 5ean, gaueko 22:00etan emanaldia eskainiko dute Itsaso eta Irune Elizagoiaren ahizpek Herriko ostatuan.



Ba al zenekien

Maiatzaren 7an Azkoitiko Txalintxo tabernako dj txapelketan parte hartu zutela Etxalarko Dj Mattin Maia eta Dj Nick Levi-k. Guztira 68 Dj-k izena eman dute txapelketa honetan eta ordezlarero 10 bat Dj-k beren saioa egiten dute. Uztailaren 4ean izanen da finala lau onenekin.



ARGAZKIA: BENANTXIO ELIZAGOIEN

Liztor beltz aunitz gure inguruan

Nafarroako Gobernuak adituek liztor asiaticoa hagitik gutxitu dela erran badute ere, erlezainek justu kontrakoa diote, jarritako tranpetan harrapatutako liztor beltzen kopuruak hori frogatzen baitu. Herriar guztiei eskatzen zaie bai tranpak jarri edo baita udaberriatik aitzinera agertuko diren kabiak deseginez, liztor beltzen kontra borrokatzeko. Argazkian ikus daitezke erlezain batek tranpekin harrapatutako bortzehun liztor Asiatico baino gehiago.

IRU BIDE
Erreategia - Asador

Burrutana, 3 - Lesaka
Tel: 948 637 127

Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattagorria
lentzeria mertzzeria

Beheko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR

Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
• Ongarriak • Burdin tresnak
• Insektizidak • Edariak • Haziak

KALEFAKZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA
ETXEZ ETXEKO BANAKETA

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
EENK
Inskripzio Zenbakia 1435

zalain
JATETXEA - RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera - Nafarroa
t. 948 631 106
948 630 967
w. www.zalain.info
e. sainz.amaia@gmail.com

sarobe
gozotegia okindegia

pº de eztegarra 25 bajo
31780 Bera (navarra)
t.948 63 08 99
www.sarobe.net

BERA
Zure ingurua klase guztietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxoak garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 625 597 • Zalain, 42 A • BERA

IGANTZI

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 29TIK 31RA

Zaldiaren Azoka eginen dute asteburuan Irrisarri Land-en

Solasaldiak, zaldi ibilaldiak, mexikar gaua eta bertze hainbat ekitaldi antolatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Zaldiaren Azoka eginen dute Igantziko Irrisarri Land abentura parkean maiatzaren 29tik 31ra.

Maiatzaren 29an, ortziral arratsaldeko 6etan, *Los secretos de la comunicación animal* solasaldia eskainiko du Fernando Noailles-ek. Noaillesek ospe handia du nazioartean mundu-

ko "zaldi xuxurlari" bakkarretakoa delako, eta Emozio-entrenatzaile gisa lan egiten du haiekin. «Zoriontsu izatea ez da aldarte bat, erabaki bat baizik» printzipiotik abiatuta osatuko du parkean eskainiko duen eta ikuslego zabalari zuzenduta dagoen mintzaldia. Halaber, nork bere emozioak gidatu, bideratu, kudeatu eta kontrolatzeko gakoak emango ditu, horiek erreprimitu gabe.

Ondotik, Aitor Larretak, *GPS eta orientazioa* izanen du hizpide. 21:00etan afaria izanen dute Jolastokiko tabernan.

Maiatzaren 30ean,



UTZITAKO ARGAZKIA

Xabi Telletxea zenaren omenez bosgarren BTT jautsiera

Aitzineko hiru urteetan bezala, aurten ere Betibehera taldeko Iraitz Etxebarria bizkaitarra nagusitu zen Xabi Telletxea zenaren omenez maiatzaren 18an egindako Igantziko BTT mendi bizikleta jautsiera probaren bosgarren edizioan. Nafarroako txapelketa ere Euskadiko Irekirako baliagarria zen proba honetan erabaki zen. Joan den urtearen aldean, eguraldi polita izan zuten txirrindulariek eta hortaz, marka hobeak ere lortu zituzten, bi txandetan. Irabazleak 2 minutu, 47 segundo eta 922 zentesimako denbora egin zuen bere jautsierarik onenean. Elite mailako bigarren postua Eric Portillorentzat izan zen (2:52.155) eta Jose Antonio Diezek osatu zuen podium nagusia (2:57.492). Nafarroako tituluak dagokienez, elite kategorian sailkapen orokorrean zazpigarren izan zen Beñat Seminario (Cicla Club) izan zen txapeldun, Iñigo Blas eta Andoni Martikorena beratarren aitzinetik. Master30 kategorian, Igantziko Biltokiko Iñaki Esarte baztandarra izan zen Nafarroako txapeldun eta 23 urtez beheitiko kategorian, Asier Añorga.

larunbat goizeko 9etan gosaria eginen dute Jolastokiko tabernan. 10:00etatik 18:00etara zaldi ibilaldia eta mendi bazkaria. Zaldiak Irrisarriko ikuiluan uzteko

aukera izanen dute zaldunek. 21:00etan mexikar afaria izanen da, Los Txamukos mariatxien animazioarekin.

Maiatzaren 31n, igande goizeko 9etan

Mendaurrera igoera antolatu dute zaldiz, nahiz oinez.

Erreserbak eta informazio gehiagorako 948 928 922 telefonora deitu behar da.



PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

Lizun
GAZTANDEGIA
Sunbilla · Tel: 948 450 862

ORBELA
SENDERSMOA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

Ba al zenekien?
Aroa Canabal eta Beñat Yancik Espainiako kenpo txapelketa irabazi dutela. Informazio gehiago kirol orrialdeetan.

ZALDI
FERRATZAILEA
625 704 419

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
Tlf: 948 625 474
BERA NAFARROA

GIZARTEA → EUSKARA

AEK-ko udako barnetegiek 20 urte

Aterpean
1995ean hasi
ziren udako
barnetegiak

Nerea ALTZURI

Aterpeak 20 urte bete-ko ditu aurten AEK-ko udako barnetegi moduan funtzionatzen. Ikas-urtean ez ezik, udako hila- beteetan euskara ikasi eta praktikatzeko aukera eskaintzeko helburuarekin abiatu ziren. Foruko barnetegia udako eskara guziri erantzuteko nahikoa ez zelako jo zuen AEK-k Arantzara, herriak eta Aterpeak egun osoan euskaraz solasteko aukera ezin hobea eskaintzen dutelako.

1995eko udan hasi ziren barnetegiak eta udaro etorzen diren ikasle eta irakasleak etxean bezala sentitzeko eginaha-

lean aritzen da herria.

Astelehenetik larunbatera klaseak izaten dituzte eskolan; eta astean behin ateraldiren bat egiten dute. Afariak eta tailerrak ere izaten dira herriarrek: dantza, herriko xoko eta hizkera tailerrak...

Udako barnetegiek bizitza haundia ematen diote herriari... Ostatu, den-da, bertzelako zerbitzu nola herriko xoko nahiz bestetan mugimendua nabaritzen da. Jende berria ezagutzeko aukera aproposa ere izaten da.

Aurten ere, uztailean eta abuztuan lau hama-bortzalditan izanen dira barnetegiak. Baina udan ez ezik, urtean zehar ere barnetegiak izaten dira. Hilabete honetan bi as-teburuz izan dira.

Aunitz urtez AEK-ko barnetegiei!
Aunitz urtez Aterpe!



Ba al zenekien...

Irailaren 19an Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Arantzara etorriko direla? Pelle Tiki Haur Eskolak gonbidatuta etorriko dira eta Txo, MikMak Txikia ikuskizuna eskainiko dute.



ARGAZKIAK: AITOR ELEXPURU

Eskolako lagunen ikasturte bukaerako ateraldiak

Herriak kanpo ibili dira azken asteotan eskolako neska-mutikoak. Argazkiak bigarren ziklokoek Oriara egindako kanpaldikoak eta Haur Hezkuntzako ikasleak Añorgako txiki-parkera egindako ateraldikoak dira. Erran beharrik ez da-ga zeinen ongi pasatu duten.

ARANTZA ROCK JAIALDIAK 20 URTE

Informazioa osatzen...

Aurten Arantzako Rock Jaialdiak 20. edizioa du. Tarte honetan, historiari buruz-ko kontuak eman genituen baina hasieraren gaineko informazioa osatu beha-rean gaude. 1995. urtean Gazte Eguna bezala sortu zen Su Ta Gar, E.H. Su-karra eta Baldin Bada taldeek Aterpen kontzertu bat egitea proposatu ziotenean. Aterpek gazteei kontzertua kanpoan egitea proposatu zien eta horre-tarako behar zen dirua bildu zen. Diru hau biltzeko 159 lagunek 1.000 pezeta paratu eta ostatuen laguntzaz 200.000 pezeta bildu ziren kanpoan kontzer-tua egiteko behar zen ekipoa eta plazako musika taldea, Beti Jai berbena taldea, finantzatzeko. Ondotik, 1996. urtetik aitzinera jaialdiak Arantzako Rock izena hartu zuen eta ordurako sortua zen Arantzako Gazte Asanblada. Hasie-rako hiru urteetan Gazte Asanbladak eta Aterpek antolatu zuten kontzertua. Izanen dugu aukera eguna hurbildu ahala kontzertuaz solasteko... Lehenbiziko edizioako taldeak ekartzeko asmoa dute... Azken asteetan hainbat bilera egiten ari dira Gazte Asanbladan egon direnak eta daudenak ideiak elkartrukatuz.



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

SMAZIZIOR
edariak

T/F: 948 631 557
Helbidea: Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: maziziorsenper@gmail.com

EDARIEN
eta
JANARIEN
SALMENTA
eta
BANAKETA

Manterola
Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA • GASA
KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602



ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak,
tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak



GIZARTEA

GIZARTEA → EKAINETIK AITZINERA

Goienener Kooperatibak informazio gunea izanen du Bidasoaldean

Bidazi elkartearen asanblada orokorra ortziralean egingen dute

TTIPI-TTAPA

Ekainetik aitzinera, hilabeteko lehen ortziralean, arratsaldeko 6etatik 8etara, Goienener Energia Kooperatibak informazio gunea izanen du Bidazi elkartearen Azokan (Alkaiaga).

Modu honetan eskualdean ditugun bi elkarre hauek espazioa partekatuko dute jendeari eskaintza hobea emateko, energia eta elikadura bateratuz.

Goienener eta Bidazik gure bizi ohituren inguruko hausnarketa eta



UTZITAKO ARGAKIA

Miren Olaetxea etxalartarrak emanen ditu Goienener Energia Kooperatibari buruzko azalpenak.

eraldaketa sustatu nahi dituzte bertakoari eta jasangarritasunari garrantzia emanez.

Informazio gehiago-

rako jo bidazi.org edo goienener.com orrietara.

Bertze aldetik, Bidazi Elkarreka, maiatzaren 29an, ortziralean arratsal-

deko 6etan asanblada orokorra egingen du, Cerderna-Garalurrek Alkaiagan duen egoitzan, azokaren ondoan.

BAZTAN

Mutildantzaren inguruan udal hautagaien jarrera salatu du Plazara Dantzarak

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalera aurkeztutako alderdi politikoetako ordezkariak Mutildantzaren eta emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan dituzten posturak aztertu eta aditu ondoren Plazara Dantzara Herri Ekimenaren ustez, «bereziki kezkarria eta arduragabea izan da UPN, Geroa Bai zein Baztango Ezkerreko erakutsitako postura. Batzuk gaiari garrantzia kenduz, berriz batzuk erasotzaileak eta erasotuak maila berean jarritik, eta azkenik, erasotzaile biktima gisa irudikatu arte».

Mutildantzaren auzia Baztanen eta Euskal Herrian oro har, «emakumeok jasaten dugun indarkeria estrukturalaren sintoma nabarmena» dela uste du Herri Ekimenak. «Hipokrita eta arduragabea da Nafarroa mailan emakumeon eskubideen alde aho betez aritzea, gero Baztanen urtero herriko plaza ezberdinetan jasan diren indarkeria zein erasoetan erasotzaileak babestu behar baldin badira».

Hauteskunde hauetatik ateratzen diren ordezkari guztiei jakinarazi nahi diete jarraituko dutela dantzan, «Euskal Herriko plaza guztiak parekideak eta askeak izan arte!».

Bortziriak-en AHOLKATUKO dizugu
EROSKETA HOBERENA egiteko

BORTZIRIAK
25 urte eskerririk asko guztioi!!!

LABEA BOSCH
HBG76S661E **539€**



GARBIKETA PIROLITIKOA 3 MAILATAN
MULTIFUNTZIOA 10 FUNTZIO
BEHERUNTZ IREKITZEN DEN ATEA
GIDARI ATERAGARRIA A KLASA -%10



40€

**ORAIN
ESKANTZA
EZIN HOBEA**

**ORDAINDU
ZURE
EROSKETA
INTERESIK
GABE**

PLAKA BOSCH
PID631B17E **469€**



INDUKTIZIOZKO 3 ZONALDE
32 cm.ko MAXX ZONALDE 1 ETA 18
ETA 15cm.ko 2 ZONALDE
17 ERREKETA MAILA AURREKO ALAKA



25€

KANPAIA BOSCH
DWB09W651 **269€**



90 cm.ko KANPAIA DEKORATIBOA
KEA ATERATZEKO 3 POTENTZIA
GEHIENETZKO ATERATZEA: 650 M3/H
GERUZA ASKOKO ALUMINIOZKO FILTROAK



15€

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 16AN JOKATU ZUTEN

Neska bikotea izanen da ordezkari Malerrekako mus txapelketan

Maria Sarratea eta Agurtzane Zubietak irabazi zuten herrikoa

dute aukera parte hartzeko maiatzaren 30ean, Elgorriagan egingen den finalean, Sunbillako ordezkari bezala.

Maider PETRIRENA

Maiatzaren 16an Malerrekako egunerako finalerako sailkatzeko mus txapelketaren kanporaketa egin zen herrian. Zazpi bikotek hartu zuten parte eta irabazleak Maria Sarratea eta Agurtzane Zubietak izan ziren.

Beraz hauek izanen

ARGAZKIA:
HARITZ ARRIOLA

Maria Sarrateak eta Agurtzane Zubietak ardoa eta gazta izan zuten saritzat, eta garrantzitsuena, Elgorriagako finalean aritzeko txartela.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Lehen jaunartzea egin dute bederatzi neska-mutikok

Maiatzaren 10ean lehen jaunartzeak izan ziren. Lau neska eta bost mutikok egin zuten. Argazkian Fermina Ibarra, M^a Teresa Etxenike, Don Juan Zabala eta Ines Obregozo katekistak, beheko lerroan Egoi Irigoien eta Ane Etxalar, eta azken lerroan, Markel Agesta, Oihan Lujanbio, Iraitx Iparraguirre, Oihan Apezteguia, Magaly Mariñelarena, Maialen Arretxea eta Lara Ribeiro ageri dira.

ARGAZKIA: ALICIA OLAIZOLA
XXV. Josex Etxurra Memorialean lau eta erdiko txapelketaren finalak jokatu ziren maiatzaren 15ean Donezteben. Gazteen kategorian, Julen Juankorena azpitxapeldun suertatu zen. Kimuetan, Pablo Irazoki ez zen finalerako sailkatu. Halere, zorionak bie.



ARGAZKIA: ANDREA MENDIBURU

Ikasturte bukaerako irteerak

Maiatzaren 12an kurtso bukaerako irteera egin zuten herriko eskolako lehen hezkuntzako haurrek. Lehenik Kutxa Espazioan egin zuten bisita, bertan gosaldu eta bazkaldu eta arratsaldean Txuri urdinera patinatzerara joan ziren. Hargiz ongi pasatu zuten eguna. Ekainaren 8 eta 9an izanen da Haur Hezkuntzako-en txanda. Hauek, Graxiana, Zugarramurdiko Sorginaren aterpera joanen dira.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Sendotza egin dute hamar gaztek

Maiatzaren 9an Sendotza egin zuten hamar neska-mutilek. Goitian, Don Juan Zabala eta Don Miguel Larrambere. Hurrengo lerroan, ezkerretik eskubira, Aitor Etxalar, Xabier Mariezkurrena, Aritz Bereau, Ibai Apeztegia eta Gorka Antuña. Beheko lerroan, ezkerretik eskubira, Zaira Gaztelumendi, Juncal Martiarena, June Apeztegia, Asier Antuña eta Jon Iriarte.

DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 6AN

Doneztebe Futbol Taldearen Eguna denboraldia akitzeko

Marga ERDOZAIN

Doneztebe Futbol Taldeak programa zabala osatu du ekainaren 6an, 2014-15 denboraldia akitzeko. Goizeko 10etan hasiko dira lehenbiziko partidak, Txiki taldea eta benjaminen artekoarekin. 11:30ean gurasoen txanda izanen da. 16:00etan zonaldeko talde nagusien arteko txapelketa burutuko da. 19:00etan Santa Luzia plazan berendua dastatuko dute txikiak, benjaminak, alebinez eta infantilek. 21:30ean afari herrikoia plazeletan, Julen Zelaieta eta Egoitz Gorosterrazu bertsolariak alaituta. Pantaila erraldoi bat paratuko da Championseko finala jarraitu ahal izateko (afarirako txartelak Titi ostatuan salgai egonen dira). Akitzeko gaupasa Oharkabe taldearen es-
kutik.

DENBORALDI BIKAINA

Talde nagusiak igotzeko lehia ederki borrokatu du, lortu ez arien. Horretaz gain, aipatu behar da jubeni-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Nafarroako I. Folklore Eguna herrian ospatu da

Iñaki Dieguez urrezko pregoilari eta Enrique Zelaiak egunari brotxea jarritz, burutu da Nafarroako I. Folklore eguna. Goiz goizetik eta arratsaldeko 8ak arte egitarau zabala dastatzeko aukera izan zen: bertako aurorak, Aurtitz, Zubietta eta Iturengo joaldunak, bertako musika eskolako trikitilariak, Lesaka eta Elizondoko akordeoi taldeak, Iturengo txalapartariak, Iruñeko Irabia eta Raices Navarras jota taldeak, Julen Zelaieta eta Bittor Elizagoien bertsolariak, Erreka Dantza taldekoei emanaldia, Mendi abesbatza, Erriberriko musika banda, baita Doneztebeko txistulariak ere. Egun zoragarria, folkloreaken magiaz baliatuta Nafarroako aniztasun eta aberastasunaren aldarrikapen ospakizuna. Heldu den urtean Erriberrik, lekukoa hartuta, helduko dio 2. edizioa antolatzeari.

lak, liga irabazi ondotik, igoera fasea jokatzeko ari direla eta mailaz igotzeko gogo handiz daudela. Doneztebeko futbol taldeak aurtengo denboraldian 11 talde izan

ditu: txikiak, alebinak (3) benjaminak (2), infantilak, kadeteak, jubenilak, neskak eta Lehen-dabiziko kategoriko Erregionalak. Harrobi ederra!

TITI OSTATUA GARAILE

Nepalekin elkartasuna VIII. Pintxo lehiaketan

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren hasieran ospatu zen VIII. pintxo lehiaketa Titi ostatuak irabazi du eta Pepa's kafetegiak herritarren saria eskuratu du. Antolatzaileek azpimarratu dute hagitzen jendetsua izan dela eta gainera elkartasun keinu batekin borobildu nahi izan dute. Parte hartu duten taberna guztiek bat eginda, pintxo bakoitzeko 20 zentimo eman dituzte Nepalen izandako lurrikararen ondorioz izan diren kaltetuei laguntzeko. Ekarpen hau (gutxi gora behera 500 eurokoa) UNICEFi emanen zaio. Keinu polita Pepa's kafetegiak eta Ameztia, Bixen, Ekaitza, El Café, Irrintzi, Titi eta Herriko Ostatuak burutu dutena.



Ba al zenekien...

Nafarroako Federazioak 2014-15 denboraldiko eskubaloien eskolarik onenaren saria Errekari eman diola. Taldeko eskubaloien atalekoek maiatzaren 29an jasoko dute saria Iruñean.

APARAN, S.A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Bilatu zure bilketarako tokia www.carneecologicanavarra.com on-line dendan.

Arkumea, txahal eta moxal lote ekologikoak, zuzenean zure etxera, bitartekaririk gabe.

VERAZAITZE
CERCA VINO
NAVARRA
EKOLOGIKOA

Bertatik bertara bizi nahi dugulako

trigolimpio

635 715 038 · Garraida - Bera - Saragüeta - Ariben - Orontze

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 30EAN

Herri ttikienak hartuko du Malerreka laugarren Eguna

Heldu den urterako lekukoa lturenek hartuko du

Mattin LARRALDE

Aurreko edizioetan egin zen bezala aurten ere programa anitza eta zabala prestatu dute Malerreka Egunerako, «bailarako herririk ttikienean, baina ilusio handiarekin». Goizeko 8etan mendi martxa egitekoak dira Sunbillatik Elgorriagara, Malerreka Gazte Asanbladak antolatua. 08:30ean gosaria. Goizeko 10etan

harrera ekitaldia egingen da eta Musika Eskolako musikariak ibiliko dira harat-honatean. Goiz osoan zehar artisauak eta talogileak eliz atarian eta pisu azpiko patioan egonen dira. 10:30etik 12:30era Sunbilla, Doneztebe eta Iturengo dantzarien eta Mendi abesbatzaren emanaldia frontoian izanen dira. 12:30ean Donamariko buru-handiak umeen gozamenerako; 13:00etan joaldunak eta "Malerreka Leihotik Begira" lehiaketako lanen irakurketa eta sari banaketa; 14:00etan paela jatea frontoian Malerreka Kantuz-ekoek



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Sagardotegi besta egin zuten Herriko Ostatuan

Maiatzaren 16an ospatu zuten Herriko Ostatuan sargardotegi besta. Bertako menua eskainiz eta sagardoa kupeletik edanez, bapo afaldu zuten eta afariaren ondotik kantu egin zuten, Iruñe soinu-joleak lagunduta.

alaituta (Txartelak Man-komunitatean, 948 451746). Laxoa pilotari buruzko erakusketa ere ikusgai izanen da. Arratsaldeko egitarauan honako ekitaldi hauek burutuko dira: 16:00etan Muxikoak, Malerreka Mus Txapelketaren finala (Herriko ostatuan); 17:00etan umeendako jokoak eta txokolatada, ondotik aiz-

kora apustua eta herri kirolak. 20:00etan zozketa eta mus txapelketaren sari banaketa; ondotik, ekitaldi ofizialari bukaera emateko, Iturengo herriari lekukoa pasatzeko ekitaldia egingen da. 21:30ean Hilarioen afaria eta 23:00etatik 02:00etara Oharkabe taldearen bigarren emanaldia. Gero, DJ Endara-ren ema-

naldia. Egun horretako gastuei aurre egiteko sariak zozketatuko dira eta txartelak salgai dau-de dagoeneko han eta hemen.

Lehen jaunartzea

Lehen jaunartzea egin zuten maiatzaren 23an zazpi neska-mutikok: Nahia, Elene, Matane, Iosu, Maddi, Saioa eta Oinatzek. Zorionak!

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

2015 UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA
edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

ITUREN

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 31RAKO HITZORDUA

Trinitate Eguna ospatuko dute Mendaurren igandean

Gauean dantzaldia izanen da

Arkaitz MINDEGIA

Igande honetan, maiatzak 31, ospatuko da Trinitate eguna. Urteko egun guzietan bixitari andana izaten ditu Mendaurren Trinitate baselizak, baina egun hau berezia izaten da, Egunduzko guziko besta egiten da, goizean goiz meza izaten da ermitan eta ondotik enbaltseen inguruan egiten diren otorduen bueltan hasten da gaueko ordu tikiak arteko besta.

Eguraldiak lagun izanez gero iturendarrek eta aurtiztarrek bazkariak antolatuak dituzte urtegi inguruan. Gero, arratsaldea dantzan eta kantuan pasa ondotik, festak Iturengo plazan egingo den dantzaldiarekin izango du segida bikaina.



ARGAZKIA: ARKAITZ MINDEGIA

Pulunpa Eskolakoak kanpaldietan

Eskolako ikasleak berriki kanpaldietan izan dira. Tikien kasuan Zugarramurdira joan ziren, hain zuzen Graxiana aterpetxera. Lezeak bisitatzeaz gain, Zugarramurdiko parajeak ere bisitatu zituzten eta sorginei buruz gehiago ikasi zuten. Helduagoak Donostiako Kutxaespazioan, Txuri Urdineko izotz parkean... ibili ondotik Doneztebeko aterpetxean pasa zuten gaua. Bi egun ahaztezin izan omen ziren.



FLASH

Goizutrailen

Aurtizko Ibai Berregik Goizuetan jokatu zen Goizutrailen 25 kilometroko proba egin zuten. 3 ordu eta 2 minutu behar izan zituen bukatzeko. Indartsu dabil korrika karreteran, maratoi erdietan eta mendi lasterketetan.

Joaldunak

Ituren eta Aurtizko joaldunen soinua harat eta honat dabil azken bolada honetan. Errate baterako, Donezteben ospatu zen Nafarroako Folklore egunean parte hartu zuten Zubietako joaldunekin batera. Bertzalde, Aurtizko joaldunak, aspaldiko urteetan bezala, Beasaingo bestetan egon ziren.

San Migelen bixita

Hiru hilabete ematen ditu santuak santutegitik kanpo, Nafarroako herrietatik barna bixitak eginaz. Maiatzaren 12an etorri zen Iturenera. Egurdiko mezaren ondotik adinekoak bixitatzen joan zen eta Palazioko atarian agurra egin zitzaion.

DONEZTEBEKO UDABERRIKO FERIAN

14 buru eder aurkeztu zituzten Malerrekako ahari lehiaketara

Bederatzi artzainek 14 buru aurkeztu zituzten Doneztebeko Udaberriko Feriako Malerrekako ahari lehiaketara. 6 ahari muturbeltzen artean, Donamariako Zabalteneko Joxe Mari Indak aurkeztutakoarentzat izan zen 120 euroko lehen saria. Bigarren saria, 70 euro, Urrozko Iturraldeko Eustasio Mariezkurrenaren ahariarentzako izan zen eta hirugarrena, 50 euro, Beintza-Labaiengo Dolareko Pepe Etxeberriarenarentzako.

Mutur gorrien atalean, 8 buru aurkeztu zituzten. Lehenbiziko saria Oizko Agortenekobordako Mari Joxe Urrozek aurkeztutako ahariarentzat izan zen. Bigarren saria Iturengo Apezeneko Jesus Azpirorenak lortu zuen eta hirugarrena Iturengo Zubialdeko Isidro Bazterriaren ahariak.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Malerrekako ahari lehiaketako saridunak, Doneztebeko udal agintariekin batera.

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → BESTABERRI EGUNEAN

Txoko politena eta gazta onena aukeratuko dituzte aurten ere

Bestaberri eguneko meza ondotik sariak

Fermin ETXEKOLONEA

Bestaberri egunean gazta lehiaketa eta herriko txoko politenaren lehiaketa egingo dira aurten ere. Arratsaldeko meza ondotik udalak berendutxoa eskainiko du, eta arratsean sari banaketa egingo dute, gazta dastatu bidean.

Malerrekako mus txapelketarako bikotea

Malerrekako mus txapelketarako herriko kanporaketan zortzi bikote aritu ziren eta txapeldun Martxel Elizalde eta Ibai Juanikorena suertatu ziren. Bigarren Patxiku Mitxelena eta Dabid Juanikorena izan ziren. Txapeldunek Elgorriagako Malerreka Egunean parte hartzeko aukera izanen dute. Bigarren ere, partaide kopuruaren arabera, beharbada izanen dute aukeraren bat.

Bake epailea

Borondatezbake epaile izateko Udalak irekitako epean inor aurkeztu ez denez, udalak



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehen jaunartzea eta ezkontza asteburu berean

Maiatzaren 16an, Ander Ortuste eta Nerea Arregi udaltxean ezkondu ziren. Oso egun polita eta berezia bizi izan zuten. Eta biharamonean, herriko zortzi neska-mutikorendako eta beraien familiendako izan zen egun berezia, lehen jaunartzea egin baitzuten Enara Santesteban, Endika Santesteban, Manu Elizalde, Xabier Elizalde, Mikel Santesteban, Mirari Iribarren eta Aina Arregik. Goiko argazkian gurasoekin ageri dira.



aukeratu behar izan du. Jose Migel Aranguren aukeratu du bake epaile titular bezala eta ordezkia Luis Mari Esarte.

Herritarrek Folklore Egunean

Maiatzaren 17an Donezteben egin zen Nafarroako I. Folklore Egu-

nean parte hartu zuten Zubietako joaldunek eta trikitilariak. Nafarroako Folklore Funtzak antoaltutako ekitaldian hainbat talde aritu ziren.

MALERREKA

Ahozko ondarea biltzen duen DVDa aurkeztuko dute hilaren 28an Donezteben

TTIPI-TTAPA

Malerreka. Maldan goiti eta beheitiko kontuak. Erreka bazterreko kantauak dokumentala aurkeztuko dute maiatzaren 28an, ortzegunean 20:00etan Doneztebeko zineman. Aurkezpenean eta gero DVD erosteko aukera ere izanen da. Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Euskokultur Fundazioarekin, ahozko ondarea biltzeko lana osatu zuen. Bilketa lana Maite Larkarrekin egin zuen, 2006-2008 epealdian. 56 herritar grabatu ziren; bideoan grabatuta gelditu dira, guztira 140 ordu inguru. Dokumentala grabazio horien lagin bat da. Beren testigantzak eman zituzten 56 gizon-emakume horiez gainera, beste hainbat lagunek parte hartu zuten modu batera edo bertara grabazioan. Dokumental honen bidez Malerreka, Bertizarana, Basaburu Txikia eta Sunbillako sehaskan sartu eta bertako kontu eta kantuekin amets egitera gonbidatu nahi dituzte ikusleak.



ARKUPEAK

ATERALDIAK → EKAINAREN 4AN

Calatayudeko harrizko monastegira joanen dira erretiratuak

Sendavivara ere ateraldia antolatu dute ekainaren 18an eta etorkizunera begira Kroaziara bidaia egin gogo dute

Jose Luis LEGARRA

Ekainaren 4an bidaia antolatu du Arkupeak elkarteak, Calatayudeko "Monasterio de Piedra" ikusteko. Monje zistertarrak sortu zuten 1194. urtean, 1983an monumentu nazionala gisa katalogatua izan zen, eta 1945ean dagoen tokia gune histori-kotzat hartu zen. Eraikina hiru fasetan egin zen: hasierako gotikoa XIII. Mendean, gotiko errenazentista XVI. mendean, eta klasiko barrokkoa XVIII. mendean. Zati hauek nabarmen-tzen ahal dira: eliza, monasterioa eta klaustroa,

kapitulu aretoa, dorrea eta parkea. Piedra izeneko ibaiak ur-jauzi asko ditu, eta aipatzekoa da Lago Espejo izeneko lakua. Hegaztien artean, hontzak, arranoak, putreak, eta bertze ikusteko aukera izanen da.

Programa: Goiza librea izanen da bertako ur saltoak eta paisaia zoragarria ikusteko, eguerdian bazkaria, eta arratsaldean nahi duenak monasterioa bisitatu dezake. Bisitak 45 minutu irauten ditu eta sarrera prezioan sartua dago.

Sendavivara bidaia

Ekainaren 18an izanen da. Sendaviva Arguedas-en dago, eta 2004an inauguratu zen. Natur parke bat da, atrakzio asko dituen eta horien artean espezie aunitzetako animaliak.

Programa: 13.00etatik 13:30era hegazti harriari erakustaldia. Bazkaria Villa de Castejón hotelean eta dantzaldia José Angelekin.



Kroaziarako bidaia ere antolatuko da

Maiatzaren bukaeran edo ekainaren hasieran banatuko da 12. informazio boletina. Bertan azalduko dira 2. seihi-leko jarduerak. Horien artean aipatzekoak dira bidaia hauek: Aralar, Arantzazu, Lezo, Kroazia, Benidorm, Tarazona eta Tudela, Gernika-ko feria, Lodosa eta Trufaren Museoa, Tenerife.

Urriaren 22an Bazkidearen Eguna ospatuko da. Egun horretan ere egingen dira ohitura-ko omenaldiak.

Erne egon izena emateko epeak betetzen, hori oso garrantzitsua baita jarduerak ongi antolatzeko denen onerako eta disgusturik ez gertatzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

Goian, Arkupeak elkarteak Santiago bidea amaituta eta behegian, Arkupeakekoak Kataluniara bidaian.

URRIAREN 22AN OMENDUTAKOEN ARTEAN

60 urte ezkondurik bete dituzte hiru senar-emaztek

Urriaren 22an, 60 urte ezkondurik bete dituzten Agustin Eizagirre eta Pepita Barandiaran beratarak, Miguel

Dorronsoro eta Soledad Zubiri igantziarrak eta Alberto Arretxea eta Rosario Iraizoz sunbildarrak daude.







POSADA OITZ

Nagusia 1 OITZ
T. 948 451 951 - 948 450168
www.posadaoitz.com



BIRZIKLATZE SISTEMAK HUTS EGITEA NAHI EZ BADUZU

BEREIZI!

HAUEK DIRA **EDUKIONTZI**
HORIAN SARTU BEHAR DITUZUN
ONTZI ARINAK

BAI

PLASTIKOZKO ONTZI ETA BOTILAK



Plastikozko botilak (ura, gaseosa, olio, ospina...), plastikozko boteak, janarien plastikozko poltsak, produktu izoztuenak...

Plastikozko
ontziak, latak
eta brikak


Hutsak eta janari
hondarrik gabe
sartu behar dira
edukiontzian

ONTZI METALIKOAK



Edarien latak, kontserba latak... aluminiozko azpilak eta ontzitxoak, janariekin datozen aluminiozko poltsak...

BRIK ONTZIAK



Brik ontziak
(zukuak, esnea,
arrautza likidoa,
ardoa...)



BAZTANGO
UDALA

www.baztangoudala.eus



www.malerrekakomankomunitatea.com



Bortzirietako
Hiru-Hondakinen Mankomunitatea

www.bortziriazabor.com



ECOEMBES

www.ecoembes.com

GOIZUETA

HONDAKINAK → ZABARKERIAZ EZ JOKATZEKO

Olatxo eta Kixulaben neurri handiko trasteak ez botatzeari eskatu du Udalak

Hondakin horiek biltzeko etxez etxeko zerbitzua eskaintzen dela gogorarazi du Udalak

TTIPI-TTAPA

Tamaina handiko edota kudeaketa berezia behar duten hondakinak biltzeko etxez etxeko zerbitzua eskaintzen duela Mankomunitateak gogorarazi nahi du Udalak. Zerbitzua dohainik da eta 948

510444 telefonora deitu ezkerro, Mankomunitateko langileak beraien joaten dira etxera hondakinen bila. Argazkian ikusi litekeenez, badirudi badela zerbitzu horren berri ez duenik. Maiz agertu izan dira Olatxo aldean edo Leitzarako bidean dagoen kixulabearen han behar ez luketen honda-



UTZITAKO ARGAZKIA

Abixuak ederki ohartarazten badu ere, batzuk nonahi uzten dituzte trasteak.

kinak eta duela gutxi ere pila utzi dute. Ingurugiroari kalte egiteaz gain, errepide bazterrean botatako sofa eta etxetresna zaharrek itxura txarra ematen dute oso. Telefono dei bat egitea, hondakinak kotxean hartu eta behar ez den tokian botatzeari baino gutxiago kostako da ba...



Ba al zenekien

Ttipi-Ttapa Mekna proiektuaren partaide dela. Eta zuk egiten diozun aportazioaren %80a errenta aitorpenean bueltan jasoko duzula. Deitu eta informatu 948 635458 telefonon (goizeko 8etatik arratsaldeko 4etara).

EKAINAREN 7AN

Bi ibilbide aukeran izanen dituen Iskibiko 6. BTT zeharkaldia prest

Iskibi kanpinak antolatzen duen BTT zeharkaldiaren seigarren edizioa egingen da ekainaren 7an. Izen ematea 08:00etan hasiko da eta irteera 9etan izango da. Parte hartzeko, Internet bidez eman daiteke izena www.kirolprobak.com webgunean, 12 euro ordainduta eta bestela, egunean bertan, 16 euro ordainduta. Bi ibilbide izanen dira aukeran, 30 eta 43 kilometrokoak. Azken honek 1.360 metroko desnibela izanen du.

Artikutzako parke naturaletik barna pasatuko den ibilbidean zehar bi hornidura-toki izanen dituzte eta proba bukatzerakoan, luntxa eta opariak izanen dituzte partehartzaileek, baita duxak eta bizikletak garbitzeko aukera ere.

FLASH

Aralar Musika Eskolaren kontzertua

Ikasturte bukaerako kontzertua eskainiko dute Aralar Musika Eskolako ikasleek ekainaren 4an, ostegun arratsaldeko 7etan Udaletxeko ganbaran. Eguraldiaren arabera, udaletxeko aterpean edo plazan ere izan daiteke.

Eskulan tailerrekoen erakusketa

Ikasturte osoan eskulan tailerrean aritu direnek ere beraien lanak ikusgai jarriko dituzte ekainaren 12 eta 13an dantzako lokalean. Ostiral arratsalde eta larunbatean egun osoan irekiko da erakusketa.

Kurtso bukaerako ateraldiak eskolan

Andres Narbarte *Xalto* eskolako ikasleak hasiak dira ikasturte bukaerako ateraldiak egiten. Haur Hezkuntzakoak, Aurtizko Abarun aterpean izan ziren maiatzaren 20 eta 21ean eta Lehen Hezkuntzakoak Donostiara joatekoak dira maiatzaren 28 eta 29an. Goxalik ere bukatu du kurtsoa.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Berriz ere Herriartekoan hasia da herriko pilota taldea

Urte batzuk zeramazkin Goizuetak Nafarroako Herriarteko pilota txapelketan parte hartu gabe, baina aurreko bigarren mailakoan hasi da. Maiatzaren 9an jokatu zuen lehen jardunaldia Atarrabiaren kontra Goizuetako pilotalekuan eta partida guztiak irabazi zituen. Herrikoekin batera, Ultzama, Zizur, Barañain, Lekunberri, Arbizu, Esteribar eta Atarrabia ari dira bigarren mailako txapelketan.

OSPAKIZUNAK → XVI. EDIZIOA

Eskolen arteko topaketak ekainaren 6an ospatuko dira herrian

Areso, Leitza eta Goizuetako eskolak batera

Juana Mari SAIZAR

Nazabal eskolakoak burubelarri ari dira antolatzen ekainaren 6an ospatuko duten Areso, Leitza eta Goizuetako eskolen arteko topaketa. XVI. edizioa da aurten goa eta hiru herrietako haur, guraso eta irakasleen arteko harremanak indartzea da ekimenaren

helburua. Festarako logo eta lema egin dituzte eta "ni+zu=gu" lelopean bertaratzeko deia luzatu dute. Horrekin batera, abestia ere prestatu dute. Zigor Agirrek, Aresoko eskolako irakasleak, osatu ditu hitzak eta Ruper Ordorikaren Glu Glu doinua erabili dute oinarrian. Maiatzaren 14an Leitzako Karrape irratan egin zuten grabaketa eskolako haur, guraso eta irakasleek eta ederki pasa zuten.



ARGAZKIA: NAZABAL ESKOLA

Karrape irratia grabatu zuten festarako sortu duten abestia.

EGUN OSOKO FESTA

Ekainaren 6an, due-la 16 urte hasitako ohi-turarekin segiz, hiru herrietako haur, guraso eta irakasleak elkartuko dira. Goizeko hamaitetan hasiko da festa, adin desberdinetako haurrentzat prestatu dituzten joku eta tailerrek. Eguerdian 13:00ak inguruan ni+zu=gu

abestia kantatuko dute eta ondoren paella erraldoia dastatzeko parada izango da. Arratsaldean fanfarre eta txistulariekin kalejira egingo da herrian barna eta ondoren soka-tira eta entzierroa ere antolatu dituzte. Indarrak berri-tzeko merienda izango da ondoren eta eguna giro bikainean bukatze-

ko dantzaldia izanen da gero. Ilusio handiarekin lanean aritu dira hiru eskoletako gurasoak, eta orain gozatzeke garaia da. Ea eguraldiak ere laguntzen duen. Guztia prest dago, denak herrian biltzea bakarrik falta da. Abestiak dion bezala: *Ni eta zu, Areson aukera daukagu, ni eta zu bihurtu gaitzen gu!*

MENDIALDEKO GIZARTE ZERBITZUEK

Larrialdietarako gizarte laguntzen ordenantzak onartu dituzte

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako bizilagunei eragiten dien neurria da. Arrazoi ekonomikoak tarteko edota gizarte eta osasun gabezia frogatuak izanda, oinarritzko beharrak estaltzeko zailtasunak dituzten pertsona edota familiak diruz laguntzea da asmoa. Laguntzak behar larrian dauden familia eta pertsonen laguntzeko bideratuta daudenez, behar hori erreala dela frogatu beharko da.

Diru sarien bidez babesa emateko bitartekoak sortuko dira. Horiei esker, krisi egoeretan esku hartu daiteke egoerak okerrera egin ez dezaten edo kroniko bilaka ez daitezen. Alokairuak, hipotekak, etxebizitzaren mantenu gastuak, larritasun latzeko egoerak, oinarritzko elikagai eta hornidurak ordaindu ahalko dira laguntza horiekin baita adin txikikoen hezkuntza gastuak ere. Izaera berezia dute laguntza hauek, aldiari behingoa izango dira eta subsidiarioak beste edozein sari edo laguntzarekiko. Interesa dutenek urte osoan zehar egin dezakete eskaera Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean, bertan lortuko dute beharrezko informazio guztia.



ARGAZKIAK: JAIONE OLAZABAL

Olazabal aita-semeek irabazi zuten Pake-Tokiko mus txapelketa

Urtero legeaz Pake Toki elkartean mus txapelketa egin dute eta aurtengoan bikoite gehiegik parte hartu ez duten arren, aritutakoek ederki gozatu dute. Finala maiatzaren 16an arratsaldean jokatu zuten eta segidan afari ederra dastatu zuten han bildutako 43 lagunek. Afalondoa sari banaketa egin zuten eta Mikel eta Joxe Martin Olazabal aita-semeak izan ziren txapela eskuratu zutenak. Ez da irabazten duten lehen txapela, elkar ongi hartu eta tandem ona egiten dutenaren seinale.

LEITZA



OSPAKIZUNAK → EKAINAREN 13RA ARTE

Aurrera doa Kultur aroa

650 lasterkari
inguruk eman
dute izena
EH Mendi
Erronkan

JM BARRIOLA

Hasiera ona izan du Kultur aroak, hitzaldi eta eta kontzertuetan herriar ugari bildu eta parte-hartze interesgarriak abiaraziz. Eta datozen asteetan ere, ekainaren 13ra bitartean, hitzaldi eta bestelako ekimenez osatutako egitarau mar-dulak segida izanen du. Asteburu jendetsua aurreikusten da, larun-batean EHME lasterke-ta izanen delako eta igandean XXXVII. Artisau Azoka. Aurten artisau askok tokia eskatu duten arren postu gu-txiago jartzea erabaki eta erakustaldian kalitate handiagoa izatea lehenetsi dute anto-latzaileek.

Ekaina edo garagar-rilean ere segida izanen du Kultur Aroak. Garagarriaren 4an, os-tegunean 19:30ean To-rrean, Dispersioaren

gordinetik izenburupe-an mahaingurua egingen dute preso ohi batek, senide batek eta soli-dario batek. Garagarri-laren 5ean, ostiral gaue-ko 11etatik aurrera kon-tzertua eskainiko du Ga-benara taldeak Peritzan. Garagarriaren 6an, la-runbat arratseko 10eta-tik aurrera kontzertua eskainiko du Benito Lertxundik kiroldegian.

Erakusketek ere iza-nen dute tokia. Aiene-ko garbilekuan, garaga-rriletik aurrera Iberori bu-ruzko erakusketa jarri-ko dute. Garbilekuan, Mikel Illarregiren Ura eta zura erakusketa ere ekainean egonen da ikusgai. Aurrera eta ta-bernetan Saharar he-rriarren egoera azaldu-ko dute. Ekainaren 5etik aurrera, Emakumea eta borroka erakusketa ikusgai jarriko dute To-rrean, Atekabeltzan eta leku ezberdinetan.

**EHME LASTERKETA
MAIATZAREN 30EAN**

650 lasterkari inguruk eman dute izena maiat-zaren 30ean egingen den



Ba al zenekien

Burdin hariak eta plastikozko goilareak ikus-kizuna aurrerago ikusteko aukera izanen du-gula. Kultur Aroaren baitan, maiatzaren 20an eskaini behar zuten saioa Oier Gonzalez eta Markel Ormazalek baina ezbehar baten on-dorioz bertan behera gelditu zen emanaldia.



ARGAZKIAK: JM. ELOSEGI ETA N. URIARTE

Iberori buruzko erakusketa jarriko dute ikusgai

Iberoko torrean eta Olazaharrean hainbat lan burutu dituzte: garbiketak, indus-ketak, sendotze lanak. Orain erakusketa bat prestatu dute herritarrek gehiago jakin dezaten bertako historiaz, ekainetik aurrera, ikusgai izanen da Aieneko garbilekuan. Bertan, bost panel jarriko dira historiaz, Torrearen eta Olaren berri emanaz eta bertan bilatutako iltze zaharrak eta material txikiak ere ikusgai ego-nen dira. Erakusketa Mirandaolatik ekarritako sutegi lanetako materialekin osa-tuko da. Erdi arotik hasita martxan egon zen lantegia XX. mende arte. Duela gutxi Bianako printzeko patrimonioko zuzendariak eta teknikoak bisita egin zu-ten bertara. Jesus Ascunce eta Javier Sancho herriko ordezkariekin bildu zi-ren eta inguruarekiko interes handia erakutsi zuten. Izan ere Torrearen, baserria, Olazaharra eta zubiak osatzen duten lekua gisa honetako ertaroko eremu ba-karra da Nafarroan. Leitzako erakusketa bukatu ondoren erakusketa Goizuetan ere ikusgai jartzeko asmoa dute.

Euskal Herriko Mendi Erronkaren hirugarren edizioan. Bezperan ha-siko dira girotzen zine-an 19:30ean antolatu duten ekimenarekin. Maddi Arrazola izanen da bertan hizlari eta Tor-de Geants lasterketa-ren inguruko azalpenak eman eta bideo bat ere izanen da ikusgai.

Maiatzaren 30ean,

08:00etan Leitzako pla-zan hasi eta bertan bu-katuko da erronka. 65 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute par-te-hartzaileek, 6 kontrol-gune igaro beharko di-tuzte eta tartean 8 anoa-postu izanen dituzte indarrak hartzeko. 7000 metroko desnibel osoa du probak (Irumugarrie-ta 1.431 metroarekin da

punturik altuena eta A-rribe baxuena 222 me-troarekin). Sailkatzeko 13 orduz azpitik osatu be-harko dute ibilbidea. Herrian bertan ere giro bikaina izanen da, tar-tean haurrentzat joko-ak ere bai. 14:00ak al-dera espero dituzte le-hen korrikalariak eta sa-ri banaketa 20:00ak in-guruan izanen da.

Gure esku dago ekimena berriz martxan da

Gure Esku Dago ekimena herrian lantzeko taldea ari da lanean. Maiatza-ren 25ean, Jostunak dokumentala ikusteko aukera izan zen herrian eta on-doren, ekainaren 21ean egitekoa den Josten egunaren inguruko xeheta-sunak eman zituzten aurkezpen eta mahainguru batean. Tartean moka-dutxoa jartzeko aukera ere izan zuten bertaratu zirenek. Hurrengo hitzor-dua ekainaren 13an jarri dute. Ehuntze eguna egingo da Leitzan, eta ber-tan bakoitzak bere oihal zatia pertsonalizatzeko aukera izango du. Gaine-ra, ekimeneko kideek jakinarazi dute ehuntzen.eus web gunean materiala eta oihalak erosteko aukera izateaz gain, hilabete honetan Leitzan oiha-lak eskuratu ahal izango direla.

BESTAK → EKAINAREN 3TIK 7RA

Bestaberri goizean aurorak eta eguerdian abesbatza kantari ariko dira

Zikiro jatean
euskal kantuen
liburuxka
banatuko dute
kantari aritzeko

TTIPI-TTAPA

Egitarau zabalarekin
datoz Almandozko Bes-
taberri bestak.

ASTEAZKENA, EKAINAK 3

- 12:00etan txupinazoa.
- 21:00etan Baztan zo-
pak Beñat Mitxelenak
alaiturik.

ORTZEGUNA, EKAINAK 4

- 08:00etan Aurora Bi-
xenterekin.
- 12:00etan Meza Na-
gusia eta prozesioa
herrian barna.
- 13:00etan luntxa fron-
toian.
- 16:30ean herriko
gazteen arteko pilota
partidak.
- 21:00etan tortilla le-
hiaketa.

ORTZIRALA, EKAINAK 5

- 10:30ean haurrenda-
ko ginkana.
- 16:00etan haurrenda-



UTZITAKO ARGAZKIA

Aurten ere herriko abesbatzak Corpus edo Bestaberri egunean aurora abestuko du. Irudian, Isabel Plazari egindako omenaldian ageri dira.

- ko puzgarriak.
- 17:00etan Mus txapelketa.
- 18:00etan Txokolata-da.
- 21:00etan herri afaria.
- 00:30ean gaupasa OHARKABE taldearen eskutik.
- 06:00etan gosaria gautxorientzat.

LARUNBATA, EKAINAK 6

- 11:00etan mus txapelketaren finalerdiak

- eta finala.
- 13:00etan sari bana-keta.
- 14:00etan Zikiro jatea (Euskal kantuen liburuxka izanen da joa-
ten direnentzat bazka-
londoan abesteko).
- 17:00etatik 21:00eta-
ra dantzaldia eta eus-
kal kantuak Beñat
Mitxelenarekin.
- 00:30etik aurrera dan-
tzaldia Beñat Mitxele-
narekin. Dantzaldiaren

ondotik gosaria inda-
rrak dituztenentzat.

IGANDEA, EKAINAK 7

- 12:00etan Meza Na-
gusia eta lehenengo
jaunartzeak.
- 16:00etan haurrenda-
ko puzgarriak.
- 16:30ean herritarren
arteko herri kirol era-
kustaldia.
- 19:00etan zozketa.
- 22:00etan bestak aki-
tzeko Gaixoa Ni.

KIROLA → MAIATZAREN 31N

Azpilkuetan hasi eta akituko da Baztango XXII. Mendi Itzulia


31 kilometro
luze eta 2.111
metroko
desnibela du

TTIPI-TTAPA

Azpilkuetan hasi eta
akituko da Baztango
XXII. Mendi Itzulia. Maia-
tzaren 31n egin dute hi-

tzordua eta mendizale-
ek 2.111 metroko des-
nibela duen 31 kilome-
troko ibilbidea egiteko
aukera izanen dute. Oi-
nez Gailurra ekimena-
rekin bat egin dute aur-
tengoan Baztango Men-
digoizaleek.

Azpilkuetatik (367
metro), Abra (712 m) eta
Aizkozko lepora (730)



UTZITAKO ARGAZKIA

31 kilometro luze duen ibilbidea prestatu dute aurten Baztango Mendigoizaleek igande honetarako, Baztango Itzuliaren 22. edizioan.

igoko dira mendizale-
ak. Indarteko Bordara
jautsita (251 m), bertan
izanen dute lehen hor-
nidura-gunea, 9. kilo-
metroan. Basakaitz (380
m), Urtsumiats (541 m,
2. hornidura-gunea) eta
Zamataleku (622 m) igo
eta gero, Infernuko erro-

tara jautsiko dira (352
m.). Hortik berriz ere goi-
ti, Domikura (555 m, 3.
hornidura-gunea) eta
Urruspilera (786 m, ibil-
bidearen punturik altue-
na); Urruspiletik behei-
ti Azpilkuetara jautsiko
dira, Bagordin barna
(581 m).

Aitzinetik izena eman
nahi duenak maiatza-
ren 29a arte izanen du
aukera [www.baztango-
mendigoizaleak.org](http://www.baztango-mendigoizaleak.org)
webgunean. Egunean
berean ere apuntatze-
ko aukera izanen da.
Ibilbidea 07:00etatik
07:30era abiatuko da.

BAZTAN

GIZARTEA → EKAINAREN 8TIK 12RA

Sentsibilizazio Astea antolatu dute Udaleko Gizarte Zerbitzuek

Aste osoan argazki erakusketak ere izanen dira Arizkunenean

ANARASD Saharar erre-fuxiatu kanpamenduko eta Indiako Vicente Ferrer Fundazioko argazki erakusketak ikusgai izanen dira.

ASTELEHENA, EKAINAK 8

17:00etan haurren-tzat tailerra egingen da, ipar eta hegoaldeko herrialdeetan bizi diren haurren arteko diferentzia edo berdintasunak hezkuntza aukeretan eta jolas aukeretan agertzeko, Itaka-Eskolapiosen eskutik

ASTEARTEA, EKAINAK 9

11:00etan Bidelagun eta SOS Arrazakeriaren eskutik erantzunak emanen dizkiete inmigrazioaren aurkako zurrumurru, aurreiritzi eta estereotipoei. 19:00etan banka etikoari buruzko hitzaldia eskainiko du Behar Bidasoak.

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 8tik 12ra Sentsibilizazio Astea antolatu dute Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik. Bertan Udalak diruz laguntzen dituen zenbait entitateen lan-ildoak, proiektuak... ezagutze-ko aukera izanen da.

Aste horretan Arizkunenean hainbat hitzaldi, argazki erakusketa eta taller izanen dira eta ostiral arratsaldean Elizondoko plazan bertzelako ekitaldiak ere antolatu dira. Aste osoan, Arizkuneneako sabaian Kolonbiako Franciscanos Conventuales, El Salvador elkartasuna,



UTZITAKO ARGAZKIA

Iruritako VII. Herri Lasterketa

Maiatzaren 17an burutu zen Iruritako VII. Herri Lasterketa. Gizonezkoen artean, Antsoaingo Antonio Casadok irabazi zuen (25:07). Javier Perez irundarra bigarren izan zen (25:52) eta hirugarrena Elizondoko Iñaki Telletxea (26:20). Emakumezkoetan, Vaneca Pachak irabazi zuen (19:24) eta Marina Aznal gartzain-darrak (20:34) eta Baigorriko Amaia Castorenek (22:07) osatu zuen podiuma.

ASTEAZKENA, EKAINAK 10

12:00etan ezintasun intelektualari buruzko hitzaldia eskainiko du ANFASeko Jon Etxegaraik, adimen urritasuna zer den, elkarteak egiten duen lana eta zonaldean dituzten zerbitzuak azaltzeko.

ORTZEGUNA, EKAINAK 11

12:00etan osasun mentalari buruzko solasaldia eskainiko dute Benito Menniko ordezkariak. 17:30ean borroka feminista, lan-kidetza eta Latinoamerika uztartuko dituen hitzaldia eskainiko du Mugarik gabe elkarteak.

ORTZIRALA, EKAINAK 12

17:00etatik aitzin eguraldi onarekin Elizondoko plazan Saharako artisau erakusketak (ANARASD), Saharako jaimapean, té, henna eta izen arabiarren tailerra eta udako kanpainari buruzko informazioa eskainiko dute ANAS eta Saharaztaneak, Juan Bonal Fundazioko artisau lanen salmenta eta erakundeari buruzko informazioa, fibromialgiari buruzko antzerkia AFINAREN eskutik eta mugikortasun zailtasunei buruzko adibideak Acodifnaren eskutik.

FLASH

Basurde arrastoko txakurren

Nafarroako Kopa

Basurde Arrastoko txakurren Nafarroako II. Kopa maiatzaren 30ean egingen dute Belate inguruan, Baztango Ehiza eta Arrantza Elkarteak, Udalaren laguntza antolatuta. Larunbat goizeko 9etan geldituko dira Venta Quemadan, konpetizioan hasteko. Izen emateko 670401774 (Unai) edo 646050321 (Javier) telefonoetara deitu behar da.

Elizondoko Lanbide Eskola

Abuztuaren 24tik abenduaren 7ra Elizondoko BHI ikastetxean langabetuentzako ikastaroa eman behar dute, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak antolatutakoa. Erakunde sozialetan menpekotasun egoeran dauden pertsonei arreta egiteko ikastaroa da. 15 plaza eskaintzen dira eta izen emateko epea ekainean irekiko da.

LANGILEEN BARNEKO PROMOZIOA ERABAT DESAGERTU DELA DIO

Bertako langileak sustatu ordezkariak kontratatzen ari direla salatu du Francisco Joaquín Iriarte Zahar Etxeko Enpresa Batzordeak

Francisco Joaquín Iriarte Zahar Etxeko lantegi batzordeak prentsa oharra eman du argitaratu, enpresa langileen kontratazioetan egiten ari den mugimenduz ezberdinen harira: «2009an kudeaketa pribatizatu zenetik eta 2014an berriro zenetik, bietan inolako lehiaketa publikorik gabe, enpresa bera ari da ku-

deaketa lanean, eta orain errelebo-kontratuei dagokienez, behin behineko eta barneko langileengan tratatu diskriminatorioa egiten ari da».

Langileen barneko promozioa inolako arazorik gabe egin da urtetan, baina gaur egun desagertu da hori. Enpresatik langileek «diskurtso biktimista» egi-

ten dutela diote. Enpresak ez duela lan baldintzak hobetzeko borondatearik ondorioztatu du langileen batzordeak. «Legeak agintzen dituen baldintza guztiak bete, enpresan urteak darra-matzaten eta bere balioa eduki erakutsi duten langileak dauden arren, kanpokoak kontratatzen ari direla salatu dute.

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAREN ERABAKIA

Aroztegia Jauregia turismo-eremua UGPS gisa behin betikoz onartu du

Udalak dio «ez dela proiektu turistikoa, urbanistiko espekulatzailerik baizik»

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak maiatzaren 20an egindako bilkuran behin betikoz onartu du Lekarozko Aroztegia Jauregia turismo-eremua UGPS (Udalaz Gainerako Eragina duen Plan Sektoriala) gisa onartzea, Lurralde Antolaketaren Batzordeak egindako aldeko txostena jaso ondoren.

Palacio de Arozteguía, S.L enpresak sustatutako proiektua, 45 hektareako eremuan garatzen da, eta berei-

zitako hiru eremu egi-
tea proposatzen du: ki-
rol, hotel eta etxebizi-
tzetarako.

Kirol-eremuaren barnean, bederatzi zulotako golf-zelai bat sartzen da, praktiketako zelai bat, golf-eskola bat eta lorezaintzako beste bat, haiei lotutako instalazioekin. Hotel-eremua erdigunetzat jotzen da, eta golf-zelaiko partze-labatean kokatzen da. 4 izarreko hotel-bainu-etxe bat izango du, 135 gelekina, kalitate handiko jatetxearekin eta ekitaldiak egiteko espazioarekin. Etxebizitzetarako eremua bereizitako hiru aldetan garatzen da ipar-mendebalde, ipar-ekialde eta hego-ekialdeko izkinetan: 228 etxebizitza, guztira, familia bakarrekoak, binakakoak eta etxebizitza



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Lekarozko Aroztegia inguruan 228 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du proiektuak.

kolektiboen blokeak.

Nafarroako Gobernuaren idatziaren arabera, ingurumena eta kultur ingurunea errespetatuz egiten dute, inguruazeharkatzen duten ubideak integratuz eta Lekaroz nahiz Elizondoko herriguneen arteko oinezko-txirrindularien lotura ziurtatuko du, baita Lekarozko Enpresa Canpusekoa ere.

KONTRAKO JARRERA

Baina denak ez dira iritzi berekoak, noski. Udal Gobernu Taldeak Udalaren autonomiaren aurkako eraso larria dela uste du. Bilduk eta Ezkerrak diote «hau ez dela proiektu turistiko bat, proiektu urbanistiko espekulatzailerik baizik. Baztango Udalak erran du behin bai-

no gehiagotan proiektu turistikoa babesten duela, hau da, hotela eta golfa etxebizitzik gabe, baina ez enpresak ez Nafarroako Gobernuak ez du interesik honetan». Udal Gobernuaren erranetan, «2008an UPNren Nafarroako Gobernuak berak txosten baten bitartez gibelat bota zuen proiektu berrira UGPSa bezala tramitatzea. 2009an ohiko tramitazioaren bitartez, hau da, udal planaren modifikazioaren bitartez bideratu ondoren proiektua atzera bota zen legez kanpokoaz iteatatik».

Aroztegia eta gero zer? Plataformak bere aldetik, proiektua gelditzea eskatu du. «Lur ez urbanizagarria, urbanizagarri bezala birkalkifikatu eta lur horien ba-

lioia, kolpe batez, ikaragarri handitu dute. Aroztegiakoa urte guzti hauetan ezagutu ditugun pelotazo urbanistikoak bezalakoa da; jorkaldi espekulatzailerik; oraingo krisirat, oraingo ustelkeria pazinerat ekarri gaituen jokabide eta eredu ekonomikoa» diote. Lekarozko herria herri galdeketa bidez proiektuaren kontra agertu zen eta Baztango Udalak ere «900 pertsonako herri berriari ezetz erran dio». Nafarroako Gobernuak onartu duena onartezina da Plataformaren ustez, «alta, herritarrek jakin behar dute Aroztegiako proiektu burugabea gelditzea borrorak segitzen duela eta ondoko pausua, administrazioarekiko auzi epaitegirat jotzea izanen dela».

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN

ELEKBERRI
INSTALADORE BAIMENDUAK
Santiago 118, Elizondo (Na) • elekberri@gmail.com • 646854825 // 616898065

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
(ETXE, INDUSTRIA, LOKALAK...)
ENPRESEN MANTENIMENDUA
LED ARGIZTAPEN ESTUDIOAK
TELEKOMUNIKAZIO INST.
PORTERO AUTOMATIKOAK
DOMOTIKA

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Santiago, 59 2C • ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

ZUGARRAMURDI

KULTURA → LEHIAKETA

Lezeen Eguneko argazki ralliko sariak banatu dituzte

Fidel Ordoki lesakarrak aurkeztu zuen bildumarik onena

Margari eta Koro

Lezeen egunean antolatutako argazki-ralliaren sari banaketa egin zen gan den maiatzaren 16an. Sariak gaika antolatuak ziren, eta saridunak hauek izan ziren:

- "Berdea" gaia: Juan Karlos Olaetxea beratarra.
- "Ura" gaia: Juan Lameirinhas baztandarra.
- "Haunditasuna" gaia: Fidel Ordoki lesakarra.
- Herritarren parte hartzea: Juan Miguel Olaizola.
- Bilduma orokorra: Fidel Ordoki.

Elizako ospakizunak

Elizako kontuak segitzen dituztenek, lana izan zuten aintzineko aste hortan: hiru egunez segidan, elizako bestak izan baititugu: 14ean Salbatore eguna; 15ean nekazarien besta (San Isidro); eta 16ean San Migel aingeruaren bisita.

Salbatore egunean, Urdazubi eta Zugarramurdiko kantariak Meza Nagusi ederra eskeini zuten Urdazubin.

San Isidroren meza berriz, xumeagoa izaten da, Alkerdiko kaperan, baina ondotik antolatzen dena pulita izaten da: mezan bedein-katutako ogi eta gasna jaten da, eta gero Armua jatetxean bazkaldu (aurten 25 lagun bildu dira).

Biharamunean San



ARGAZKIA: J. LAMEIRINHAS

Argazki lehiaketan sarituak eta sari banatzaileak (Azketa, Kattalin, eta Altxatenea jateak, eta Errota-berri landetxea).



San Isidroko ogia (ia metro luzekoa) eta edaria Palazioko familiak eskaintzen du eta gasna Etxelekuko familiak.

Miguelak lur-eremuak bedainkatu zituen, usaia den bezala, euripean.

Ba al zenekien

Ttipi-Ttapa Mekna proiektuaren partaide dela. Eta zuk egiten diozun aportazioaren %80a errenta aitortenean bueltan jasoko duzula. Deitu eta informatu 948 635458 telefonoan (goizeko 8etatik arratsaldeko 4etara).



JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarinearik
 2 km. tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

Martiko
 Pol Zalaín, s/n.
 31780 Bera, Nafarroa
 Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
 www.martiko.com

Ahatekietan adituak eta arituak

DENDA ORDUTEGIA:
 astelehenetik
 ortziralerara
 08:00etatik
 17:00etara

MENDIALDE
Jatetxea

T. 948 453 060 • AMAIUR
 www.mendialdea.com

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
 Zugarramurdiko errep. 3 km
 URDAZUBI

GIZARTEA → MAIATZAREN 20TIK

Karrika nagusian norabide bakarrean ibil daiteke orain

Franck DOLOSOR

Aldaketa haundia etorri da herrirat karrika nagusian norabide bakarrean ibili behar baita orain, Bidegurutze aldetik aintzira edo Amotze alderat buruz. Gan den maiatzaren 20tik, ezin da bertze alderat ibili eta hori egin nahi duenak itzuli osoa egin behar du iazko urrian ideki zen saihesbidean barna ibiliz eta karrika nagusirat berriz etorritz. Pierre Marie Nousbaum auzapezak dio herri barnea berpiztu nahi dutela Ainhoan edo Ezpeletan azken urteetan egin duten bezala. Behin be-

hineko erabakiak zer ondorio emanen duen ongi aztertuko dute mol-datze lanak egin aintzin. Orduan zabalduko litzukete espaloiak. Hamar senpertarretik zazpi herrikanpo egiten dituzte erosketak. Egoera hau aldatu nahiluke herriko bozak irabazi zituen taldeak.

Oposizioak dio aldaketa beharrezkoa zela baina saihesbide laburragoa pentsatu behar zela lehenago. Ezker abertzalearen ordezkari bakarrak uste du herriko bertze auzoak ere berpiztu behar lirateke-



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Mundu bat lakuan

Korrika urteak onak izaten omen dira Herri Urratsentzat eta aurten ere hola gertatu da milaka lagun bildu baitziren aintziraren inguruan. Ikastolek ez dute dirurik baina urrezko garaia bizi omen dute Paxkal Indo Seaskaren presidentearen ustez urte guziz ehun ikasle gehiago hartzen dituztelako eta irailean hiru ikastola berri sortuko baitituzte Biriatu, Basusarri eta Azkaraten. Auzi, isun eta presio guzien gainetik lanean segitzen dute Ipar Euskal Herriko 30 bat ikastolek. Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzaren hizkuntz politika sailburu ordeak euskaren aldeko lege babes egokia aldarrikatu zuen Iparraldeko 3 diputatu eta 2 senatariren aitzinean. Martin Garitano Gipuzkoako ahaldu nagusiak gehitu zuen batzuek ez dutela euskara maite baina gutxienez trabarik ez sortzea eskatu zuten, gogoratu Espainiak Euskadin duen gobernu ordezkariak helegitea aurkeztu zuela aldundiak Seaskari eman nahi zion 600 000 euroko diru laguntzari. Frantziako hezkuntza saileko akademia ikuskariak adierazi zuen Seaskarekin lanean segitzen duela eta aurten ere lanpostuak sortuko dituztela. Seaskak eskerak eman zizkien Christine Bessonart auzapez ohia eta Dominique Idiart euskaltzale eta zinegotziari urteetan Herri Urratsi eman dioten laguntzarengatik.

URDAZUBI

IRTENBIDEA → IRAILA BAINO LEHEN

Hondakin-uren arazoak konpontzeko proiektua aukeztuko du Nilsak

Herri-guneko eta Leorlas eta Hiribere auzoetako beharrak asetzeko

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Tokiko Azpiegituren enpresak,

herriko hainbat auzotan hondakin-urekin dauden arazoak konpontzeko aukerak aztertuko dituz datozen hilabeteetan. Santiago Villares, alkatea eta Juan Jose Suhas alkateordea maiatzaren 20an bildu ziren Nilsako ordezkari-kin eta adostu dute iraila baino lehen proiektua aurkezteko dutela.

2011. urtetik bueltak dabilta afera honekin. Orduan egin ziren azkenekoz Hiribere obrak, ponpaketarako gune bat jarri, baina ez dago erabilgarri ez delako araztegi batekin lotu. Dantxarinea eta Landibarko urak berriz 2012an ireki zen araztegi-
an tratatzen dituzte eta Alkerdikoak Zuga-

rramurdiko aroztegira bideratzen dituzte.

Egingo duten ikerketa horretan, Nilsak herri-erdigunean eta Leorlasen dauden araztegiak kendu beharko ote liratekeen aztertuko du. Horretaz gain, errentagarritasunari begira, aukerarik egokiena hondakin-urak Ainhoa-Dantxarinean dagoen

araztegi-
bidaltzea ote den edo uren tratamendu-
durako herrian beste araztegi bat sortu behar ote litzatekeen ere ikertuko dute.

Hiribereko saneamendua bukatzeak lehentasuna duela azpimarratu zuen alkatea eta Esparza ministroari ere egin dio zuzeneko eskaria.

SARA

KIROLA → ASTEBURU HONETAN PAUE ALDEAN

13 urtez azpiko Urtxintxek finala jokatuko dute

Seniorrak finalerdietara ailegatu dira

Joana GERENDIAIN

Urtxintxak eskubaloia taldeko 13 urtez azpikoak finalerako kalifikatu dira, finalerdietan Angelu-Biarritzeko ekipa kanporatu dute joaite matxan 27-24 irabaziz han eta itzultze matxan 25-23 Saran.

Sarako, Senpereko eta Ainhoako neskek osatzen dute ekipa eta Anaïs Gorosurreta eta Anaïs Zuttionekek entrenatu dituzte. Hastapen zailak ukan dituzte, bai kopuru aldetik, 3 neska zituzten bakarrik eta baita matxa aldetik ere, dena galtzen zuten. Beharrik 2. garaiaren gauzak

arrunt aldatu diren, ekipa motibatu eta lotu bat ukan dute 10 neskekin, matxa guztiak irabazi dituzte haien multzoko lehenak bukatu dute. Finalak maiatzaren 29-31ko asteburuan jokatuko dira Paue aldean.

Seniorrak finalerdietara iritsi dira baina ez dute lortu Ganeko ekipa garaitzea, joaite matxa 32-27 galdu dute etxean eta itzultze matxa 20-14 han.

Aurtengo sasoiak zaila izan da hastapenean 14 neska ziren eta 10 ekin bukatu dute, baina hala ere Txomin Bereauk eramanik lotu dirak eta finalerdietara iritsi. 4 urte bete dira Txominen ekipa hori hartu zuenetik, berak dionez nortasun azkarreko tal-



ARGAZKIAK: URTXINTXAK
Goitian 13 urtez behekoak eta ondoan, seniorrak.

dea da baina plazer handia hartu du entrenatzailerak gisa eta horregatik eskerrak eman nahi dizkie. Ekipa bat hartzen zun lehen aldian zen eta neskek segitzeko gogoia eman diote nahiz eta ez den gehiago Sarako Urtxintxekin izanen.

Kantaldia

Ekainaren 11an, osteguna, Erlauntza Sarako abesbatzak kantaldi bat emanen du elizan, gauko 9etan. Sar-tzea 5 eurotan izanen da.



Basurdeen 20 urteak

Aurten Sarako Iza-rak errugbi elkarteak bere 20 urteak ospatu-ko ditu. Horren karieta-ra egun berezi bat antolatzen dute ekainaren 13an. Arratsaldeko 2etan Animainiako zelaian belaunaldi arteko hunkitze txapelketa bat

antolatua izanen da: zahar, senior, juniorrak, txikiak, entrenatzaile, guraso eta 1996ko txapel-dunak parte hartze-ra gonbidatuta daude. 19:00etan zintzur bustitze bat izanen da eta ondotik 21:00etan afaria.

Afarirako txartelak 20 eurotan salgai Herriko Etxeko edantegian.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959
948637404



Berako beilatoki berria irekia dago:
Iturlandeta, 2

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA) | DONEZTEBE (SAN PEDRO)
ELIZONDO (BAZTANDARRA) | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | LESAKA |

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



Martzutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ...

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Fernando Garcia Nieto eta **Idoia Lacasa Iantzi**, Irungoak Lesakan, maiatzaren 16an.

Ander Ortuoste Ibarra eta **Nerea Arregi Almandoz**, Zubietan eta Oronoz-Muagirikoa, maiatzaren 16an.

Mohssine Bouzendaga eta **Goretti Garro Iribarren**, Maroko eta Urrozkoa, Donezteben, maiatzaren 16an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Suhar Asurmendi Maia, Berakoa, apirilaren 1ean.

Joanes Zestau Ugalde, Saldiasakoa, maiatzaren 5ean.

Bianca Corina Ioan, Doneztebekoa, apirilaren 27an.

Igor Urtxegi Bidegain, Nartartekoa, maiatzaren 14an.

Suhar Aristu Uzkiaga, Legasakoa, maiatzaren 17an.

Markel Iriarte Plaza, Berakoa, maiatzaren 11n.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Elias Huizi Madariaga, Igantzakoa, maiatzaren 7an, 90 urte.

Miguel Zabaleta Garro, Leitzakoa, maiatzaren 9an, 88 urte.

Jose Otxoteko Mitxelena, Lesakakoa, maiatzaren 8an, 92 urte.

Martin Mariezkurrena Baztarrika, Ezkurakoa, maiatzaren 8an, 86 urte.

Francisca Galzagorri Galzagorri, Sunbillakoa, maiatzaren 10ean, 83 urte.

Lino Indakotxea Indakotxea, Zubietakoa, maiatzaren 11n, 82 urte.

Marcelina Ustariz Telletxea, Iruritaakoa, maiatzaren 12an, 84 urte.

Cecilio Agustin Gabasa Del Campo, Elizondokoa, maiatzaren 13an, 80 urte.

Francisco Sorarrain Kortadi, Sunbillakoa, maiatzaren 13an, 90 urte.

Donato Elizalde Gortari, Arizkungoa, maiatzaren 15ean, 81 urte.

Felix Santiago Ustarroz Grazena, Oronoz-Mugairikoa, maiatzaren 15ean, 84 urte.

Lorenzo Oskoz Ekioiz, Almandozkoa, maiatzaren 17an, 59 urte.

Maria Irigoien Irigoien, Igantzakoa, maiatzaren 19an, 90 urte.

Jean Zunda, Sarakoa, maiatzaren 6an, 88 urte.

Lea Lastra, Sarakoa, maiatzaren 6an, 74 urte.

Jean Baptiste Sorondo, Sarakoa, maiatzaren 7an, 79 urte.



**Elias
HUICI MADARIAGA**

Hermenegilda Zozayaren alarguna
Igantzina, 2015eko maiatzaren 7an

Gure ondotik joan izan arren,
beti izango dugu zure oroimena
gure bihotzetan.

MAITE ZAITUGU.

ANAI-ARREBAK



**Xanti
GAMIO SALABERRIA**

Goizuetan, 2013ko ekainaren 5ean, 50 urte zituela
II. URTEMUGA

Bi urte dira ez zauekagula
gurekin aldamenean
baina betiko egongo zara
guztion oroimenean.

ZURE FAMILIA

Rekordatorioak
egiten ditugu

ttipi-ttapa

Koskontako Bidea, 7-1
LESAKA | 948635458

MENDI LASTERKETA → GEHIENEK 25 KILOMETROKO IBILBIDE LUZEA ETA 41EK HAMAR KILOMETROKOA

162 korrikalarik bukatu zuten II. Goizutrail mendi lasterketa

Endika Gartzia eta Laida Elizegi nagusitu ziren ibilbide luzean

TTIPI-TTAPA

Euriari eta lohiari aurre eginez, 162 korrikalarik lortu zuten maiatzaren 16an Goizutrail lasterketaren bigarren edizioa bukatzea. Horietatik 121ek ibilbide luzea osatu zuten, 25 kilometrokoa. Lasarte Oriako Endika Gartziak nagusitasunez irabazi zuen (2:11:51). Bost minutu luzeko aldea aterazioz bigarren izan zen Zumarragako Juanjo Igarzabali (2:16:57) eta 7 minutukoa Andoaingo Jon Ugalderi (2:18:52). Eskualdeko lehenbizikoa helmugan Arraiozko Aritz Alunda izan zen



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

25 kilometroko ibilbide luzeko podiuma Goizuetan.

(2:32:25, hamahirugarren) eta goizuetarren artean, Hodei Lujanbio izan zen bizkorrena (2:48:04, 36. sailkapen orokorrean).

Emakumezkoen artean, Zaldibiko Laida Elizegi suertatu zen garai-le (2:54:00), Iruñeko Uxue Loizu bigarren (2:57:59) eta Tanit Perez de Lezeta donostiarra hirugarren (3:07:51).

MAIALEN APEZETXEA GOIZUETARRA GARAILE

10 kilometroko ibilbide laburrean, Urnieta Jon Ramos izan zen irabazle (58:09), Iñigo Gurrutxaga donostiarren (58:38) eta Lasarte-Oriako Beñat Los Arcosen aurretik (58:41). Emakumezkoetan, Maialen Apezetxea goizuetarra nagusitu zen (1:06:46ko denborare-

kin hamargarren izan zen sailkapen orokorrean), Legazpiko Maider Pagola (1:10:24) eta Edurne Gonzalez gasteiztarren aurretik (1:16:40). Goizuetarren artean, Aritz Zubiri izan zen bizkorrena (1:06:48, hamaikagarren sailkapen orokorrean) eta emakumezkoetan, Maialen Apezetxea irabazleaz gain, Ane Zin-

ESKUALDEKOAK 25 km

- 13 Aritz Alunda-Arraioz
- 15 Oskar Aristimuño-Leitza
- 17 Agotz Altzugarai-Lesaka
- 18 Joseba Lasarte-Bera
- 22 Gorka Bermejo-Leitza
- 36 Hodei Lujanbio-Goizueta
- 38 Eneko Andueza-Leitza
- 41 Mikel Iriarte-Leitza
- 48 Txus Unson-Bera
- 56 Beñat Saralegi-Leitza
- 58 Josu Zestau-Leitza
- 65 Ibai Berregi-Ituren
- 78 Iñigo Sagastibeltza-Leitza
- 79 Aitor Huizi-Leitza
- 86 Alex Salaberria-Goizueta
- 88 Egoitz Zubiri-Goizueta
- 92 Mikel Saenz-Leitza
- 95 Mikel Diosdado-Leitza
- 99 Zigor Sagardui-Goizueta
- 103 Josetxo Txoperena-Leitza
- 105 Eneko Zabaleta-Leitza
- 111 Javier Lizartza-Leitza
- 118 Mikel Olano-Leitza

ESKUALDEKOAK 10 km

- 10 Maialen Apezetxea-Goizueta
- 11 Aritz Zubiri-Goizueta
- 34 Ibon Elizegi-Goizueta
- 35 Ane Zinkunegi-Goizueta
- 36 Ana Iribarren-Donostia
- 38 Gogor Atxalandabaso-Donostia
- 40 Uxue Mutuberria-Goizueta

kunegi (1:30:17) eta Uxue Mutuberria (1:52:29) goizuetarrak atera ziren.

KONTRABANDISTEN LASTERKETA → MAIATZAREN 16AN

Mikel Beunza nagusitu zen Urdazubín

TTIPI-TTAPA

Ultzamako Mikel Beunzak irabazi zuen maiatzaren 16an Urdazubiko Kontrabandisten lasterketa. 68 korrikalarik akitu zuten 15,8 kilometroko ibilbidea. Mikel Beunzak ordubete, 9 minutu eta 55 segundo behar izan zituen

ibilbidea osatzeko eta kasik hiru minutu atera zizkion bigarren izan zen Joseba Larralde beratarren (1:12:54). Iñaki Telletxea elizondarra izan zen hirugarren (1:13:27). Imanol Lukanbio aranztarra laugarren izan zen, Miguel Solano etxalarta-



UTZITAKO ARGAZKIA

Iñaki Telletxea (3.), Mikel Beunza irabazlea eta Joseba Larralde (2.).

rra seigarren, Daniel Iparagirre aranztarra zazpigarren eta David Nesprías saratarra bederatzi-

garren.

Emakumezkoetan, Sara Peña gipuzkoarra izan zen irabazle, iaz be-

zala (1:23:43), Lurdes Oiartzabal (1:24:53) eta Nerea Hermoren aitzinetik (1:45:43).

PILOTA → MAIATZAREN 16AN DONEZTEBEN

Josetxo Ezkurra Memorialaren hamaika finalak jokatu dituzte

Final nagusian, Oberenako Asier Ansa 18-12 nagusitu zitzaion Antiguoko Joseba Baez-i

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko San Pedro besten egitarauaren barnean izaten badira ere, aurten maiatzaren 16an jokatu dituzte Erreka elkartek hogeita bosgarren aldiz antolatutako Josetxo Ezkurra Memorialaren hamaika finalak.

2006an jaiotako ume edo benjamin mailan, Urretxuko Oier Ibarluzeak 18-11 irabazi zion Ilunpeko Unax Elosegiri.

2005ean jaiotako ume edo benjamin



UTZITAKO ARGAZKIA

Josetxo Ezkurra Memorialean eta Errekako txapelketan aritutako pilotari batzuk.

mailan, Lazkaoko Beñat Zubizarretak 18-6 irabazi zion Errekako Aitor Agesta zubietarrari.

2004ko kimu edo alebin mailan, Añorgako Unai Amianok 18-12 irabazi zion Orozkoko Arkaitz Eskuzari.

2003ko kimu edo alebin mailan, Ilunpeko Iker Egigurenek 18-15 irabazi zion San Mi-

guel elkarteko Borja Berrueteri.

2002ko hauredo infantil mailan, Ilunpeko Unai Alberdik 18-13 irabazi zion Urretxuko Markel Garciari.

2001eko infantil mailan, Gasteizko Otxoa I.ak 18-16 irabazi zion Barberito I elkarteko Javier Bobadillari.

2000. urtean jaiota-

koen kadete mailan, Oiarpeko Oroitz Seinek 18-9 irabazi zion Ilunpeko Gorka Iriarteri.

1999ko kadete mailan, Usurbilgo Aitor Arangurenak 18-3 irabazi zion Getariko Gorka Aristiri.

1998ko gazte edo jubenil mailan, Errekako Iker Salaberria goizuetarrak 18-13 iraba-

BEZPERAN

Errekako buruz burukoaren finalak

TTIPI-TTAPA

Aurrebenjamin: Jon Larunbe, 6-Iker Anzizar, 18.
Benjamin B: Hodei Iriarte, 18-Mikel Telletxea, 12.

Benjamin A: Xuban Erbiti, 18-Oihan Sarratea, 11.

Alebin: Ruben Saldias, 10-Aitor Agesta, 18.

Infantil: Gaizka Agirre, 18-Patxi Loiarte, 7.

Kadete: Enaitz Telletxea, 18-Andoni Gaskue, 17.

Jubenil: Julen Juankorena, 9-Aritz Fagoaga, 18.

ERREMONTA → SAN ISIDRO I. TXAPELKETA

Uterga eta Etxeberria III garaile Madrilen

40-25 irabazi zieten finalean Ezkurra II eta Barrenetxeari

TTIPI-TTAPA

Madrilgo Triángulo de Oro pilotalekuan le-

hen aldiz jokatu da San Isidro 2015 pilota txapelketa, eskuz nahiz erremon-tean, Madrilgo Udalak, Nafarroako Gobernua eta Remonte Fundazioak antolatuta. Erremonteko finalean, Xanti Uterga eta Joxe Etxeberria donezteba-



UTZITAKO ARGAZKIA

Erremonte eta esku pilota txapelketetako irabazleak Madrilen, antolatzaileekin batera.

rrek irabazi zieten finalean Ezkurra II eta Barrenetxea IV.ari, 40-25.

Erremontearen aitzinetik, eskuzko finalak ere jokatu zituzten. Iri-

arte eta Lintzoainek 22 eta 13 irabazi zieten Yoldi eta Etxamendiri.

ARTE MARTZIALA → MAIATZAREN 9AN JOKATU ZEN LAS ROZAS-EN (MADRIL)

Eskualdeko kirolarien domina uzta bikaina Espainiako kenpo txapelketan

Aroa Canabal eta Beñat Yanci igantziarrak txapeldun

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 9an jokatu zen Las Rozas hirian (Madril) Espainiako Kenpo txapelketa. Denetara 254 kirolari aritu ziren eta Bortziriak eta Baztanetik joandako kirolariek emaitza bikainak eskuratu zituzten. Berako Izei Gillenea izan da Nafarroako selekzioaren entrenatzailea.

Igantzik Aroa Canabalek, emakumezkoen 13-14 urteko kategorian, lehen partehartzean, Espainiako txapeldun izatea lortu zuen, semikontaktu borroka puntuan modalitatean.

Igantzik Beñat Yan-



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan eta Bortzirietatik Espainiako txapelketara joandako ordezkaritza.

cik bigarren parte hartzea zuen eta 14-15 urteko mutikoen kategorian Espainiako txapeldun izan zen semikontaktu borroka puntuan modalitatean.

Etxalarko Unai Arburuak lehen partehartzea zuen, 12-13 urtekoen

kategorian eta hirugarren postua lortu zuen semikontaktu borroka puntuan modalitatean.

Elizondoko Maria Rekaldek bigarren partehartzea zuen 14-15 urteko kategorian eta bigarren postua eskuratu zuen semikontak-

tu borroka jarraia modalitatean.

Beñat Garaiar berrak, semikontaktu borroka jarraia modalitatean, 75 kiloz behe-tiko gizonezkoen artean laugarren postua eskuratu zuen, hirugarrene-tik hurbil.

Txapelketan betera-noetako bat den Zaila Latasa elizondarrak bigarren postua eskuratu zuen semikontaktu borroka jarraia modalitatean eta horretaz gain, 2004ko emakumezko kenpo kirolari onena izendatu zuten.

Saririk lortu gabe, txapelketa polita egin zuten Etxalarko Edorta Iturriak eta Paxkual Alzagak.

Espainiako kopari dagokionez, Etxalarko Miren Olaetxea emakumezko helduen kategorian aritu zen eta bere lehen partehartzean, hirugarren postua lortu zuen kata armekin modalitatean.

Juan Mari Vidal, Pilar Martinez, Koro Iriarte, Modesto Ordoki eta Izei Gillenea maisuek egindako lana azpimarratzekoa da.

HERRI KIROLA → 4X4 SOKATIRA TXAPELKETA

300 kilokoan ere txapeldun izan da Beti Gazte

Amaiur azpitxapeldun izan da pisu arinenean

TTIPI-TTAPA

320 kiloko txapelketan egin zuen bezalaxe,

Nafarroako 4x4 sokatira txapelketako pisu arinenean, 300 kilokoan ere txapela jantzi du Lesakako Beti Gazte taldeak, maiatzaren 16an Etxarri Aranatzeko jokatu zen finalean Amaiurri irabazi ondotik. Berriozar hirugarren izan



UTZITAKO ARGAZKIA

300 kiloko podiumean, Beti Gazte txapelduna, Amaiur eta Berriozar.

zen, Amaiur B laugarren eta Kaskallueta bosgarren. Emakumezkoen 235 kiloko kategorian

Berriozar nagusitu zen, 255ekoan egin zuen bezalaxe, Txantrea eta Kaskalluetaren aitzine-

tik. Kadete mailako txapelketan (280 kilo) Berriozar izan da txapeldun nagusitasunez.

TXIRRINDULARITZA → EKAINAREN 6AN

Bidasoaldeko III. Saria Igantzin hasi eta bukatuko da

Helmuga
Piedadeko
gainean izanen
du, 130 kmko
ibilbidearen
ondotik

TTIPI-TTAPA

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak antolatzen dituen lasterketen baitan sartuko da aurten ere Bidasoaldeko Saria, ekainaren 6an. 2011. urtean antolatu zuen lehen aldiz Igantziko Biltokiko txirrindularitza atalak sub-23 kategoriako txirrindularientzat. 2013an elite kategoriako txirrindulariak ere ateratzeko eta

Euskaldun Txapelketarako baliagarria izateko, ibilbidea luzatu egin zen 130 kilometroak bitarte. Aurten ere Euskaldun txapelketarako baliagarria izanen da eta Bidasoaldeko Sari honen, Nafarroako errepideko txapelketa ere erabakiko du. Beraz, elite eta sub-23 kategorietako lehenbiziko nafarrak, 2015eko Nafarroako errepideko txapeldun ere izanen dira.

Igantziko Biltokik duela bi urtekoaren ibilbide beretsua prestatu du horretarako. Igantziko plazatik 15:30ean abiatuta, Berrizaun, Bera, Alkeberrea, Bera, Lesaka, Piedadeko gaina, Igantzi, Berrizaun, Sun-



UTZITAKO ARGAZKIA

Espainiako Orduko Errekorra hobetzen saiatuko da Ibon Urtiaga

Afizionatu mailako Transbidasoa txirrindulari taldean ari den Ibon Urtiaga, 39 urteko betelurrak erronka handia jarri dio bere buruari. Ekainaren 6an, Valentziako Luis Puig Belodromoan, Master30 kategoriako Espainiako Orduko errekorra gainditzen saiatuko da. Gaur egun errekorra 43,078 kilometrotan dago.

billa (tarteko helmuga), Oronoz-Mugairi-Donestebe, Berrizaun, Bera (TH), Lesaka, Piedadeko gaina, Igantzi, Berrizaun, Sunbilla (TH), Berrizaun, Lesaka, Nabazko gaina, Lesaka, Berrizaun, Lesaka, Berrizaun eta Igantzin barna, Piedadeko gainean izanen dute helmuga. Beraz, bi aldiz igoko dute Pieda-

deko gaina Lesaka aldetik eta helmugarako Igantziko aldetik.

Orai lau urte Caja Rualeko Yelco Gomez izan

zen irabazle eta eta 2013an Victor Martin, Lizarte taldekoa. Biak profesionalak dira orain.



Ba al zenekien...

Ekainaren 5etik 7ra, bi egunez Bartzelona eta Donostia lotuko dituen Powerade BTT Non Stop 550 kilometroko mendi bizikleta lasterketako zortzi hidratazio puntuetako azkena Doneztebe izanen dela.

DUATLOIA → ULTZAMAN MAIATZAREN 9AN

Iñigo Arregi irabazle eta Errekako taldea bikain

TTIPI-TTAPA

Ultzamako I. Duatloia burutu zen maiatzaren 9an eta azpimarratzekoa izan da Errekako Triatloi Taldeko kirolarien partehartzea. 4,7 kilometro lasterka, 21 kilometro bizikletan eta hondarreko 2,35 kilometro berriz ere lasterka egin behar zituzten eta Iñigo Arregik garaipeña lortu zuen (58:47),

Santi San Miguel laugarren izan zen (1:00:55) eta Rafa Maritxalar seigarren (1:01:24).

Gibelxeago, hama-seigarren postuan Fernando Rekalde sartu zen (1:02:44), Xabier Bañares hogeita laugarren (1:05:30), Urko Loiarte hogeita zazpigarren. (1:07:12) eta lurgi Berrueta hogeita hamabigarren (1:11:17).




UTZITAKO ARGAZKIA
Errekako ordezkaritza bikain ibili zen Ultzaman.

MUNDUKO BINAKAKO PALA TXAPELKETA

Xabi Ibargarai erratzuarrak eta Fusto argentinarrak irabazi dute

Pablo Fusto argentinarrak eta Xabi Ibargarai erratzuarrak irabazi dute Munduko Euskal Pilota Kontseiluak antolatutako Munduko binakako pala profesional txapelketa, maiatzaren 16an Mungiako udal pilotalekuan jokaturako finalean pronostikoak bete eta Esteban Gaubeka eta Ibai Perez bizkaitarrei 3-1 irabazita (10-8, 10-8, 3-10, 10-8). Bitxikeri moduan, galtzaileek tantu gehiago egin zituzten azkenean (34), irabazleek baino (33).



maiatzak 28 - ekainak 11

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Solasaldiak	Bertsoak	Ospakizunak
 LESAKA 2015.05.30 Rosa Jové haurren psikologian aditua dena Lesakan Haur eta gaztetxoaren psikologia klinikoan eta psikopediatrian (0-3 urtekoak) aditua den psikologo katalana Kultur Etxean izanen da. Sarrerak: www.centrodasya.com.	 SENPERE 2015.05.30 Bertsolariak Senpereko karriketan barna Maialen Lujanbio, Jon Maia, Xumai Murua eta Eneritz Zabaleta Senperen ariko dira bertsoetan, pilota plazan eta Karrika Nagusian, 16:00etatik goiti.	 ARESO 2015.06.06 Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako haurren topaketa Jokoak, tailerrak, egun honetarako egindako kanta abestu, bazkaria, kalejira, entzierroa, sokatira... Haur eta gurasoek ez dute aspertzeko aukerarik izanen.

Erakusketak

LEITZA

Saharar herriaz

Maiatzaren 14tik aurrera argazkiak Aurrean eta tabernetan.

'Ura eta zura ekainean'

Maiatzaren 14tik aurrera Garbilekuan.

'Emakumea eta borroka'

Ekainaren 5etik aurrera Torrea, Atekabeltza...

SENPERE

Berinak arte

garaikidearen jaialdia

Maiatzaren 30etik ekainaren 14ra.

ELIZONDO

Sentsibilizazio Astea

Ekainaren 8tik 12ra Arizkuneneako sabaian.

Solasaldiak

LEITZA

Kultur Aroaren barne

Maiatzaren 27an Gaitasun handiak eskola mailan antzeman eta jardun Aurrean (19:30).

Maiatzaren 28an

Umorearen gerra 20:00etan Aurrean.

Maiatzaren 29an Tor de Geants 19:30etan zineman.

Ekainaren 4an Dispersioaren gordinetik, 19:30etan Torrean.

DONEZTEBE

Konpostaren inguruan

Maiatzaren 27 (12:00) eta **29an** (19:00).

IRURITA

Jakoba Errekondo

Maiatzaren 29an 19:30etan Jauregiarten.

SALDIAS

Jakoba Errekondo

Maiatzaren 30ean 09:30etan eskolan.

LESAKA

Rosa Jové

Maiatzaren 30ean Kultur Etxean, 18:00etan.

ELIZONDO

Sentsibilizazio Astearen baitan Arizkunenean

Ekainaren 9an Inmigratioari buruz, 11:00etan. Eta banka etikoari buruz 19:00etan.

Ekainaren 10ean Ezintasun intelektualari buruz, 12:00etan.

Ekainaren 11n Osasun mentalari buruz, 12:00etan. Eta *Borroka feminista, lankidetzeta eta Latinoamerika* 17:30etan.

ITUREN

'Erraiak' liburuaz

Ekainaren 11n Herriko Etxean, 19:30etan.

GOIZUETA

Jakoba Errekondo

Ekainaren 13an Umore Ona Elkartearen (11:30).

Tailerrak

ELIZONDO

Baratzeko mamuak

Ekainaren 6an plazan, 10:30-13:30.

Sentsibilizazio Astea

Ekainaren 8an ipar eta hegoaldeko herrialdeetan bizi diren haurren arteko diferentzia edo berdintasunak hezkuntza aukeretan eta jolas aukeretan. Arizkunenean, 17:00etan.

PROPOSAMENA

ELGORRIAGA

Malerrekako Eguna maiatzaren 30ean

Aurten Elgorriagak hartu du Malerrekako Eguna antolatze lekuak eta laugarren urtez, egun osoko besta antolatu dute: artisauak, talogileak, dantzariak, buru-handiak, joaldunak, *Malerreka Leihotik Begira* lehiaketako lanen sari banaketa, paella jatea, laxoari buruzko erakusketa, mus txapelketaren finala, herri kirolak, dantzaldia eta DJa, herri afaria...



BERA

Begiraleentzako ikastaroa

Ekainaren 6 eta 20an Beralandetan. Informazioa: 948 634125.

Antzerkiak

SENPERE

'Hazparneko anderea'

Maiatzaren 29an Larreko Kulturgunean 20:30etan.

Kontzertuak

BERA

Musika Eskolakoak

Maiatzaren 29an txistu entzunaldia, 18:00etan.

Ekainaren 9an udako kontzertua, 18:30etan.

Bera kantari

Maiatzaren 30ean 19:00etan Illeketan.

LEITZA

Kultur Aroaren barne

Maiatzaren 29an *Tematikoktela* kontzertua, 18:00etan zineman.

Maiatzaren 30ean Governors eta Dama, Atekabeltzen, 00:00etan.

Ekainaren 5ean Gabenara Peritzan (23:00).

Ekainaren 6an Benito Lertxundi, 22:00etan Kiroldagian.

Ekainaren 12an Torrean, 19:30etan.

SARA

Usopop jaialdia

Maiatzaren 30ean 16:00etatik aitzinera.

Euskal kantak

Ekainaren 11n

Erlauntza taldearekin, 21:00etan Elizan.

GOIZUETA

Aralar Musika**Eskolakoentzako kontzertua**

Ekainaren 4an 19:00etan.

ETXALAR

Elizagoien ahizpak

Ekainaren 5ean Herriko Ostatuan (22:00).

ELIZONDO

Esne Beltza eta Ufestuek Nafarroa Oinezan alde

Ekainaren 6an Lur Aretoan, 23:00etan.

LESAKA

Musika Eskolakoentzertuak

Ekainaren 9 eta 12an.

Dantzak

SARA

Zazpiak Bat dantza taldeko haurren saioa

Ekainaren 12an 19:00etan frontoian.

Bertsoak

SENPERE

Maialen Lujanbio, Jon Maia, Xumai Murua eta Eneritz Zabaleta

Maiatzaren 30ean pilotan plazan eta Karrika Nagusian, 16:00etan.

BERA

Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Miren Amuriza eta Xabier Terreros

Ekainaren 6an Kultur Etxean, 20:00etan.

Azokak

LEITZA

Artisau Azoka

Maiatzaren 31n 11:00-19:00 plazan.

Sagardo Eguna

Ekainaren 13an 19:00-21:00 plazan.

ETXALAR

Gasna eta eskulan feria
Ekainaren 7an.

Ospakizunak

LEITZA

Kultur Aroa

Maiatzaren 14tik ekainaren 13ra.

Ehuntze Eguna

Ekainaren 13an.

BERA

Mintza Eguna

Maiatzaren 30ean.


ENTRETENIMENDURAKO GAIAK



Bi kobazulo

UXUE ALBERDI

Elkar, 2015



Su garaiak

GOVERNORS

Baga-Biga, 2015



Euskal Herria mendi
erronkaren ataria

EHMENDIERRONKA.EUS

Hodei eta Argi bikiak elkarrengandik aparte bizi dira tximista batek euren kobazuloa erdibitu zuenetik. Anai-arrebek ez daukate elkarren berri, euren iragana erabat ahaztu baitute. Mundu zatituak eta pertsona zatitutak batasun bila abiatuko dira istorio honetan, eta, horretarako, iluntasunean bidaiatu beharko dute eta amildegien aitzinean, jauzi egin. Gure beldurrei buruzko ipuina da, gure barne hausturei buruzkoa, fantasiaz eta magiaz kontatuta. 8 urtetik goitiko neska-mutikoentzat egindako ipuina da, Uxue Alberdik idatzia eta Antton Olariagaren irudiek inhornitua.

Governors taldearen bosgarren lana da *Su garaiak* izenekoa, zuzenean grabatutako disko bikoitza (DVD eta CD). Taldeak zaleei eman zien diskoaren hogeitabestietatik hamar hautatzeko aukera, sare sozialak erabiliz bozka emanez eta horregatik diote «abestiek indarra irabazi dutela zaleen oniritziari esker». Taldea 2006an sortu zen Arrasaten (Gipuzkoa), eta disko hau bederatzi urteko etaparen laburpena dela adierazi dute taldekideek. Izan ere, 2015eko bukaeran agertokiak utziko dituztela iragarri dute eta ez dutela berriro zuzenean joko 2017ra arte, orduan disko berri batekin itzuliko baitira. Hala, *Su garaiak* lanak «zubi lana egingen du, ez dugu nahi diskoen arteko denbora hori hain luzea izatea». Musikari laguntzaileen artean, Aitor Antruejok gitarra jo du *Galdutako Laztana*, *Zuloan* eta *Uneak* kantuetan. Naroa Gaintzak ahotsa sartu du *Hienaren Irribarrea* kantuan. Zuriñe Hidakok *Kistal kolpatuak* kantuan abestu du.

Aurten hirugarren aldiz egingen da 65 kilometroko luzera eta 7.000 metroko desnibela duen Euskal Herria Mendi Erronka. Larunbat honetan, maiatzak 30, egingen da, aurrekoetan bezala Leitzan. Bada lasterketa honen inguruko xehetasun guztiak biltzen dituen ataria da *ehmendierronka.eus*. Lasterketaren inguruko informazioa, ibilbideari buruzko datuak, araudia, egitaraua, multimedia atala eta sailkapenen atalak ditu, besteak beste webguneak. Ez da nolanahiko lasterketa izaten, ibilbidearen luzera da horren lekuko eta proba egiteko dagoen gehieneko denbora ere bai, hamahiru ordu baitituzte lasterketa bukatzeko. Dagoeneko itxita dago izena emateko epea baina aipatu, gehieneko parte hartzaile kopurua 750 lagunetan ezarria zutela antolatzaileek. Aipatzeko beste datua da lasterketa aurrera ateratzeko lanean ari diren boluntario kopurua ere: 350 lagunetik gora.

ELGORRIAGA

Malerrekako Eguna
Maiatzaren 30ean.

ITUREN

Trinitate Eguna
Maiatzaren 31n
Mendaurren.

ARESO

Haur, guraso eta eskolen XVI. Topaketak
Ekainaren 6an.

ELIZONDO

Sentsibilizazio Astearen azken egunean plazan

Ekainaren 12an 17:00-etatik aitzinera.

Txistularien Alardea

Ekainaren 7an.

DONEZTEBE

Futbol Taldearen Eguna
Ekainaren 6an.

Errekaren Eguna
Ekainaren 13an.

SARA

Errugbi taldearen XX. urteurreneko besta
Ekainaren 13an.

Bestak

ALMANDOZ

Herriko bestak
Ekainaren 3tik 7ra.

BERA

Aitzateko bestak
Ekainaren 12tik 14ra.

Mendi irteerak

ETXALAR

Zanpingorri taldea
Maiatzaren 31an Aralekorrera, 07:00etan.

BAZTAN

XXII. Mendi Itzulia
Maiatzaren 31n
Azpikueta.

Mendigoizaleen irteerak
Ekainaren 7an Belate-tik Leitzara, 06:00etan.

LEITZA

Mendi Erronka
Maiatzaren 30ean.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI. Etxebizitza salgai, 60 m²ko bajearekin. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. Bajera eta etxea elkarrekin. 112.000 euro negoziagarriak. Nahi izanez gero, aparte ere salgai. ☎948 585036.

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

URDAZUBI
- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio oso ekonomikoa. ☎646 774117.

ETXALAR. 85m²ko pisua salgai. 3 logela, egongela eta 2 komunekin. Sukaldea mobleztatua dago eta etxe-tresnekin. Garajea eta trastelekua ditu. ☎678 006425 / 948 635017.

LESAKA. Ote kalean, 85m²ko etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, balkoia, trastelekua eta aparkaleku batekin. Prezioa negoziagarria. ☎650 655448.

DONEZTEBE. Parrokia Karrikan pisua salgai. 3

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

logela, komuna, sukalde-jantokia, 2 trasteleku. Duela gutti zaharberritua. ☎948 450384.

ETXEBIZITZAK


errentan emateko

IRUÑEA. Pisua errentan emateko. 3 ikaslerentzat aproposa, bi unibertsitateen erdian. ☎639 401147.

ETXALAR. Larrapil Sarriku karrikan etxea errentan emateko. Herriko bisita zoragarriak dituen toki paregabea. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, 2 egongela, despentsa eta trasteleku handia. Oso eguzkitsua. ☎687 766971 / 688 842054.



LESAKA. Eltzeta karrikan 100 metroko etxea errentan emateko. 450 euro hilean. Oso argitsu eta 4 logelarekin. ☎686 378154.



DONEZTEBE. Duplexa errentan emateko. Sukaldea, egongela, komuna eta 2 logela. 300 euro. Pisua estrenatze-ko dago. ☎674 847735.



IRUÑEA. Pisua errentan emateko Paulino

Caballero kalean. 3 logela, mobleztatua. Oso argitsu. Unibertsitate-tik 5 minutura. 647 992350.

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisu berria errentan emateko. Sukalde-egongela, logela bat, komuna eta trastelekua. 300 euro alokairua edo 73.000 eurotan salgai. ☎663 312557.

ETXEBIZITZAK

konpartitzeko

ELIZONDO. Konpartitzeko etxebizitza bila, pisua edo logela. ☎686 735961.

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

BERA. Berako bikote gazte batek Beran pisu bat errentan hartu nahi du. ☎686 589282.

LURRAK/ORUBEAK

salgai

BERA. Herrigunetik 100 metrotara eta hagitx leku lasaian, etxea eraikitze-ko prest dauden partzela urbanizatuak salgai. Deitu 18:00etatik aitzinera. ☎618 963226.

GARAJEAK/LOKALAK

errentan emateko

LESAKA. Lur azpiko bi garaje errentan emateko. Bat Bittiria karrikan eta bertzea Albisturren. ☎618 962937.

LESAKA. Bittiria karrikan dagoen janari-denda errentan eman nahi da. Negozioz aldatze-ko aukera ere bada. ☎616 889459.

ZERBITZUAK

denetarik

Detektibe pribatua. Legezkoa, euskalduna, 24 ordutan konpromisorik gabeko aurrekontua eskaintzen dizugu. Blunt Detectives. Iruñean-Nafarroan. ☎948106237 / 637 368839.

**LANA**

eskariak

Donezteben neska bat prest dago udan aste tarte umeak zaintzeko, bai goizez eta bai arraz-

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(maiatzaren 8tik 15era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 38 € (-2,00)

Zerri gizona
1,174 € kilo. (-0,011)

Zerramak:
0,440 € Kg/bizirik. (-0,030)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,13
1.koa 3,93
2.koa 3,75

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,03
1.koa 3,65
2.koa 3,51

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00
idixkoak 160,00
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 6,00/6,60
8-10 kilokoak: 5,60/5,80

tsaldez ere. ☎650 080499.

Hizkuntzak dakizkien emakumea eskaintzen da edozein lanetan goizez aritzeko. Euskara B2 maila, ingelesa B2 eta frantsesa dakizkiena. ☎679 210910.

Neska baztandarra udan haurrak zaintzen, haurrei klase partikularrak ematen edo zerbitzari gisa aritzeko prest dago. Euskalduna eta ingelesez hitz egiten duena. ☎616 770410.

Doneztebeko neska euskaldun bat dendetan dependienta, adineko pertsonak zaintzen, etxeak garbitzen, zerbitzari, sukaldar laguntzaile edo administrari bezala lanean aritzeko prest dago. Malerreka eta Baztan aldean. Kotxe propioarekin. ☎649 901395.

Emakume euskalduna adineko jendea edo haurrak zaindu eta etxe-ko lanak egiteko prest dago, Bera eta Lesaka inguruan. ☎678 903294 / 948 630914.

LANA eskaintzak

ZUGARRAMURDI. Graxiana aterpean zerbitzaria behar da. Frantsesa pixka bat menperatzen duena. ☎675 711498.

IGANTZI. Uda honetarako zerbitzariak, sukaldariak eta kamioi-gidariak behar dira Irizarri Landen. Bidali curriculum: administracion@irizarriand.es.

ANIMALIAK salgai

SUNBILLA. Zakurkumeak salgai. Ama Border Collie eta atta euskal artzain zakurra. ☎609 047743.



Aurrerako txerrikumearen bila bazabiltza, hemen duzu aukera. **Zerrikume pintoak** salgai. Ikusi nahi izanez gero, deitu. 47 euro txerri bakoitza. ☎695 716894.

ANIMALIAK oparitzeko

Txakur meak oparitzeko. ☎686 686160.



Hilabeteko txakurkumeak opari. Artzai txakur eta border collie nahasketa. Bi eme eta bi har. ☎636 113244 / 699 329581.




Katakumeak oparitzeko. Guraso ehiztariak: sagu, satagin, sator, zozo, ziraun... ☎652 750817.



LEITZA. Txakurkumeak oparitzeko (setter ingelesa eta euskal artzain txakurren arraza gurutzaketa). ☎609 222899.



Txakurra eta txakur-



kume meak oparitzeko. ☎663 117499.

MOTORRAK salgai

Ssangyong Rodius autoa salgai. Ongi zaindua. 2006koa eta 100.000 kilometro. Zazpi laguntzako eta malletero ederra. ☎619 317168.



Citroen C15 autoa salgai, oso egoera honean. ☎636 043476.

Bi zaldirentzat tokia duen **remolkea** salgai, Westfalia de Fibra markakoa. 2001ekoa. 2.700 eurotan. ☎661 542705.



DENETARIK salerosketak

ORONAZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramantzen da. ☎676 242520.



Zortzi marmolezko mahai salgai, zortzi la-



gunendako (oktogonalak). ☎948 585036.

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287 / 699 461394.

Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.



Oxelo markako **linea-ko patin frenodunak** salgai (44 neurrikoak, beltz kolorekoak, behin bakarrik erabiliak) eta Oxelo markako patinentzako **motxila**, osagariak, sakeleko telefonoa eta abar eramateko poltsikoduna. Behin bakarrik erabiliak. ☎645 700355.



Baztango losa gorria salgai. Zabalera: 30 cm;

SANTESTEBAN TAILERRAK

KM 0

16.900€

SCENIC SELECTION DCI 110 CV
ESTREINATU GABEA

4.800€+BEZ

KANGOO ITXIA 1.5 DCI 70 CV
2008 urtekoa - 68.000 km

Leitzako errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

luzera: 30-70 cm; lodi-tasuna: 2,5-3 cm. Oso-tara: 125 m². Prezioa: 25€/m². ☎626 644420 / 605 878202.



DENETARIK galdu-aurkituak

BERA. Haurren bizikleta desagertu da Kanttonberri karrikan. Connor markakoa, beltza eta berdea. ☎661 460266.

HILABETE HONETAKO ESKAINTZA

143€

2500 FLYER A5 [14,8cm x 21cm]


Koloretan bi aldetik
135g
Diseinua + inprenta + garraioa
BEZa barne
Epea: 10 lan egun

ESTRELLA
OTXOTOKO
AZKARTASUNA GARBITASUNA
EROSOTASUNA
KALITATEA

ttipi-ttapa
Koskontako bidea, 7 - 1 | 31770 LESAKA
948 635 458 | erran.eus | info@ttipi.eus

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€ Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) erran.eus bitartez



UNAI ALTZUGARAI ARANBILLE 11 urte beteko ditu ekainaren 4an. Zorionak Alman-dozko amatxi, ataxi eta osabaren partetik.



Goizuetako IZARO SALDIAS MAKAZAGAK 3 urte bete ditu maiatzaren 14an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik!



ENEA ERKIZIA AMOROS Doneztebeko gure printzesak sei urte beteko ditu ekainaren 7an. Auniz urtez eta muxu haundi-haundi bat Oier, Ainere, Alaitz, Ane, Ioritz, Intza, Aroa, Beñat, Udane, Elaia, Ekaitz eta Ibaireren partetik.



Leitzako AMETS eta UNAI GEREÑO GARCIA 4 urte beteko dituzte maiatzaren 29an. Zorionak maiteak. Egun on-ona pasa amatxo, aiatxo, amona, aitona, aiatxi, amatxi eta osaba-izeba guztien partetik.



Zorionak bikote! PAUL IRAZOKIK maiatzaren 19an urteak bete zituen eta **ALIZIA OLAIZOLAK** ekainaren 2an beteko ditu. 17 besarkada bie! Lagunen partetik.



IRATI MENDIBURU GALARREGI 5 urte beteko ditu maiatzaren 28an. Zorionak IRATI! Ongi pasa zure eguna! Muxu haundi bat.



Zorionak hirukote maiatzaren 16ko partez! **IDOIA LACASA, FERNANDO GARCIA** eta **UXUE**, eguna ongi pasatu izanen zenutela espero dugu. Berako lagunak.



Nartarteko JUNE MARTIN ARGAINEK maiatzaren 26an urte bat bete du. Zorionak etxeko printzesa politenari, muxu bat familia eta bereziki Iraiaren partetik.



EKIÑE GOÑI OSKOTZEK maiatzaren 31n 6 urte beteko ditu. Zorionak Arantza, Oiz eta Ibarrako familien partetik. Muxu potoloak Egoitz eta Uxueren partetik.



Alkaiagako IORITZ GOIENETXE MARITXALARREK maiatzaren 19an 10 urte bete ditu. Zorionak maitai! Anaia-arreba eta gurasoen partetik.



HAIZEA ZELAIETA GORRITXATEGI gure pottokinak 4 urte ekainaren 1ean. Zorionak! Amatto, attatto, Gari eta... familia guztia partetik! Muxu haundi bat!



JOANES BERTIZ GRAJIRENA sunbildarrak 5 urte beteko ditu ekainaren 12an. Auniz urtez! Labaien eta Sunbilla familia eta bereziki Urki, Ekiñe eta Jone.



Lesakako ELAIA MINDEGIA ARANBURUK ekainaren 8an 3 urte beteko ditu. Zorionak Beintza-Labaien eta Lesakako familia eta bereziki Kattalinen partetik.



Erratzuko NAROA BIKONDO JAURENAK 10 urte beteko ditu maiatzaren 29an. Zorionak familia eta bereziki Enaitz anaia partetik. Ongi pasa eguna

hemen
agertu
nahi
duzu?

egin zure erosketa
erran.eusen

argazki
soila
4
EURO

aldizkarian
eta
interneten

argazki
bikoitza
8
EURO



ttipi-ttapa



DISEINU GRAFIKOA

Komunikazio elementuak garatzen ditugu :

IRUDI KORPORATIBOAK: • logotipoak eta papergintza •

ARGITALPENAK: Aldizkariak, Katalogoak, Bestetako Programak, Udal Aldizkariak, Folletoak, Liburuak, Mapak...

BERTZE EUSKARRIAK: Boletoak, pegatinak, lonak, roll up, panelak, poltsak, txapak ...

EGUTEGIAK: SAKELEKOAK, PARETAKOAK, MAHAI GAINEKOAK...

Koskontako bidea, 7 31770 LESAKA T. 948 635 458 kulturkari@ttipi.eus www.kulturkari.com

Bertso Jaialdia

BERA

Kultur Etxea

Ekainak 6

20:00



Sarrerak: 3 €.

Sustrai Colina - Maialen Lujanbio - Miren Amuriza - Xabier Terreros

Antolatzaileak:




GURE ESKUALDEKO MERKATARITZA GUNEA

Jantzi-dendaK MANGO Desigual. LACOSTE Levi's Calvin Klein RIP CURL Pepe Jeans.	Lurrin-dendaK CHANEL D&G CH Dior LANCÔME GUCCI DKNY Jean Paul GAULTIER YVES SAINT LAURENT Thierry Mugler	Janari-dendaK 	Gasolindegia  prezio Merkeenetan	Jatetxeak 
---	---	---	---	---



Ibardin

www.ibardin.net



Nafarroako Gobernua

EUSKAL KOSTAKO MENDIA

Uste baino hurbilago!



URTE OSOAN IREKIA, IGANDEETAN ERE



ttipi txartelarekin beti irabazten da !

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK
-%25eko DESGRABAZIOA ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea 7 LESAKA
T. 948 635 458 | F. 948 635 457
info@ttipi.eus
www.ttipi.eus

DESKONTUAK

FOTO-ARGAZKIAK
GOIKO
BERA | %10 kopia digitaletan

kukuka
HAUN AARRA DEKDA
DONEZTEBE
%10 pijama eta barruko arropetan

MASTER
ALTZURI
LESAKA | %5 etxetresnetan

KIROLAK ZELA
BERA | %5eko deskontua

elika
BERA | %5 kontsultan

txinelka
ZAPATADENDA
LESAKA | %10eko deskontua

ZOZKETAK

638. ALEKO IRABAZLEAK
KAMISETA BAT | Onddo ta punto
Graciana Aleman | **ELIZONDO**
TXOKOLATE LOTEA | Arkupe
Bonifacio Calasanz | **LEKAROZ**
2 LIBURU | Erein argitaletxea
"Tigrearen emaztea" Oskar Goñi | **BERA**
"Basajaun eta Martin" Trini Eratsun | **ITUREN**
2 SARRERA | Aquariuma
Jeannie Telletxea | **LESAKA**
2 SARRERA | Sorginen Lezeak
Montse Bengoetxea | **ARRAIOZ**
"Galtzagorriei to, Inaxito!" LIBURUA+DVDa | Lanku
M^a Carmen Goñi | **ELIZONDO**
"Bertsu 2008" LIBURUA+DVDa | Lanku
Izaskun Zubialde | **ZUBIETA**

1
KAMISETA BAT
Buatxabal
www.buatxabal.eu

2
"Txo, Mikmak txikia" POSTERRA
"Sentitu, Pentsatu, Ekin! Sinfonikoa" CDa
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
www.katxiporreta.com

3
2 LIBURU
Elkar argitaletxea
"Ipurtargien hernán" | "Argixorgin"
www.elkarargitaletxea.eus

4
2 SARRERA
Lesakako Udal Igerilekua
www.lesakakoudalkiroldegia.weebly.com

5
2 SARRERA
Irrisarri Land
www.irrisarriland.com

6
2 SARRERA
Donostiako Aquariuma
www.aquariumss.com